


# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko ekainaren 21a / 590. zenbakia



# SANJUANAK02




Arrasateko Udalbatzak  
San Juan jai zoriontsuak  
opa dizkizue  
arrasatear guztioi



ARRASATEKO UDALA

## ATREBENTZIAEZPADA/ Zeri ez dutzezu kalerik egingo herriko jaixetan?



**AMAIA PAGALDAI**  
Langillie



**HARRIET ALUSTIZA**  
Ikaslie



**GORKA ENPARANTZA**  
Ikaslie



**AINHOA ARREGI**  
Langabetua



**LANDER OLAZABALAGA**  
Ikaslie



**MAITE MENDIZABAL**  
Ikaslie

Martitzenien, Eguzki Laruren inguruen ibilli biherko naz, umiekin. Bestela, gusetan jat bezperako Errementari dantzie ikustie, tanborradiek sortzen dauen girue eta San Juan Sue.

Gutxi urtengo dot, azterketekin nabillelako. Eta urteten badot, tabernetik ibilliko naz, ia ze giro dauen ikusten.

Kaleko girue gusetan jat neuri.

Gutxi urtengo dot, baiñe urteten badot, kaleko girue ikusi, buelta pare bat emun ideak despejetako eta... barriro be ikastera. Kontzertuek eta txosnagunie gusetan jat, baiñe ezin!

Ez dakit hamen geratuko nazen edo Pirinioetara juengo nazen, edo zer! Baiñe hamen geraketan banaz, Monterroneko kontzertuetan ibilliko naz, eta kalien egingo dittuen ekintzetan.

Azterketie dauket; Eskola Profesionalien, urtero moduen, sanjuanetan ipintzen duskue azterketak. Eta herritarrok, txarto pase-tan... Gaiñera, 26xen has-ten gare; hortan, begittu!

Ez dakit, ba! Dragoi Jane-  
ra urtero jueten naz, eta gustoko kontzerturen bat-  
edo egoten bada, hara be  
bai.

Dana dala, jaixetan ez dot askorik parte hartzen...

## KONTUANHARTZEKOAK

### OHARRAK

#### ERAKUSKETA INDUSTRIALA

Gaur, egubakoitza, Erakus-keta Industriala inauguratu dute. 12:00etan izan da inaugurazioa, Saiolanen. Arrasateko industriaren historiaren zati bat ikusi ahal izango dugu: antzinako makinak, argazkiak...

#### ERRETIRATUENDAKO TXANGOIA

Bihar, zapatua, Toki Argi elkarte erretiratuak Oriora joango dira. Goizeko bederatzietan elkartuko dira, Musakolako erretira-tuen etxearen ondoan. 18 euro kostako da eta egun osoarako txangoa izango da.

#### BIBLIOPORRAK

Arrasateko liburutegiak, inguruko beste liburutegi batzuekin batera, liburu gomendagarrien zerrenda atara du. Zero urtetik aurrera, adinaren arabera banatu dituzte liburuak. Eta euskarazko zein gaztelaniazko liburuak gomendatzen dituzte. Jakina, hori guzti hori oporrei begira atara dute.

#### ODOL ATERATZEA

Datorren uztailaren 2an eta 3an etorriko dira berriro ere Arabako Odol Bankuko Elkarteak anbulatoriora. Arratsaldean ibiliko dira anbulatorioan, 16:15etik 20:00ak arte, hain justu ere.

### AED-RENAGENDA

#### DRAGOI JANA

Urteroko ohiturari utsita, ekainaren 24an, San Juan egunean, herriko plazan Dragoi Jana izango da. Dragoi txuleta goxo-goxoak dastatzeaz gain, zenbait ikuskizun ere izango dira. Eskuratu txartelak ahal den lasterren AEDn, AEKn edo Monte eta Iturriotz taberne-tan. Prezioa: 10 euro.

#### UDAKO AUZOLANDEGIAK

AEDk auzolandegiak antolatu ditu uztailaren 5etik 15era. Kanboko Salvador Ikastegira joko dute, eta han hormak konpondu eta margotuko dituzte. 16 urte baino nagusiagook izena eman AEDn lehenbailehen.

### GUARDIAKOFARMAZIAK

#### EGUBAKOITZA, 21

CORCUERA. M. Aranbarri 1. .... 943 79 22 26

#### ZAPATUA, 22

AMEZUA. Santa Marina 32 .... 943 79 09 74

#### DOMEKA, 23

IRIZAR. Erguin 11 ..... 943 79 12 39

#### ASTELEHENA, 24

ZABALA. Zarugalde 42. .... 943 77 16 30

#### MARTITZENA, 25

RUIZ. Maala 31. .... 943 79 14 09


#### EGUAZTENA, 26

ESPAÑOL. Araba etor. 17. .... 943 79 18 65

#### EGUENA, 27

AZKOAGA. Iturriotz ..... 943 79 19 99

## ALKATEARENAGURRA/ Xabier Zubizarreta



## 2002ko San Joanak

*bi, bizero, bi*

*bio, bis*

*biren, biko*

*bizi, biziko*

*bi, biri*

*zubi, zubiri*

*biribila*

*bizibedi*

*betiko*

*bi zero eta bi biko.*

*Eta bi hitzez, biribiltzeko:*

*Gure esku bideak urratzea*

*Espetxeratuak, etxeratzea*

*Bake egarria asetzea.*

*Eta Joanak, joan arte*

*Bitartean, ondo pasatzea.*

## ETABARRUAN...

SAN JUAN JAIK 2002

Alkatearen agurra	/3
Egitaraua	/4
Bezperako ekitaldiak	/8
Eguzki Laru	/11
Grafitiak	/12
Wushu kung fua	/14
Pilota	/16
Arku tiroketa	/19
Kale giroa	/20
Ruper Ordorika	/21
Dr. Deseo	/22
Tabernen jaia	/24
Mariachiak eta Arrasate Musikalen banda	/26
Koadrilak	/31
Txosnak	/32
Errementari dantza	/35
Dragoi Jana	/36
Argazki zaharrak	/38
Erretiratuei omenaldia	/43
Entzierroak	/44
Arrasate Irratia jaietan	/46
Goiena Telebista jaietan	/49
Zorion agurrak	/51
Txirritola	/52
Erretratua	/54

**Arrasate**

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bollnaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gainzarain  
Ane Berezibar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA  
SS-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

EGITARRAUA

# JAIETAKO EGITARRAUA

## Egubakoitza 21

Ludoteketan eta Gazte Txokoetan KAMISETA TINDATZEA egingo dute.

**22:30** Amaia Udal Antzokiko sarreran 'PUTZ JAIA': Rita Arrabalera kabareta eta Asier Serranoren eta bere taldearen kontzertua.

## Zapatua 22

**11:00** Uarkape Udal Pilotalekuan KOADRILA ARTEKO PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK.

**16:00** Uarkape Udal Pilotalekuan SAN JUAN PILOTA TXAPELKETAREN FINALAK, aurrebenjamin, benjamin, alebin, infantil, kadete, gazte eta senior mailetan.

**16:00** Txosnagunean GRAFITI ERAKUSKETA.

**22:30** Monterron parkean ROCK KONTZERTUA:



DANBORRADAK PLAZA BETEKO DU.

Anger, Numen eta Doctor Deseo.

## Domeka 23

**12:00** Herriko plazan TXUPINAZOA koadrilak elkartzeko.

**15:00** Arrasateko TXISTULARIEKIN DIANA.

**16:00** Herriko plazan ETXAFUEGOAK ETA BONBA JAPONIARRAK.


**17:00** Zaldibar pilotalekuan ARKU TIROKETA Txapelketa. Arku tiroketa praktikatzeko aukera ere egongo da.

**17:00** Koadrilak Maalan elkartuko dira MAKALA herriko plazaraino ekartzeko.

**18:00** Herriko plazan koadrilek MAKALA JASOKO DUTE. Horren ondoren, triki-poteoa.

**19:30** San Juan Bataiatzailearen parrokian SALBE SOLEMNEA.

**21:30** Nafarroa etorbidetik herriko plazaraino



ROCKAK ERE IZANGO DU LEKUA JAIETAN.

**Uriarte**  
SPORT

*Ondo pasan  
San Juan jaiak!*

Olarte 6 • Tel.: 943 79 27 78 • ARRASATE

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**LANDALUZE**  
HARATEGIA-URDAITEGIA  
Etxeko txorizo bereziak  
ITURRIOTZ KALEA, 7 TEL. 943 79 14 86  
ARRASATE

**Hemen**  
GARBIKETAK

Garbiketetan  
profesionalak gara

943 71 48 45  
607 94 89 84

Laster webgunea: [www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Gora San Juanak!

EGITARAUA



MARTITZENEAN, BATEZ ERE, UMEAK IZANGO DIRA JAIETAKO PROTAGONISTA.

ERREMENTARI DANTZA; Arrasateko euskal musika eta dantza taldeek parte hartuko dute.

**22:30** SAN JUAN SUA herriko plazan.

**22:30** Nafarroa etorbideetik irten eta herriko kaleetan zehar, SUDCek antolatuta eta Eskoriatzako Musika Bandarekin, NAGUSIEN DANBORRADA. Ibilbidea: Nafarroa etorbidea, Laubide plaza, Garibai etorbidea, Maala, Erdiko kalea eta herriko plaza.

**23:00** Txosnagunean SKA FESTA, Cyprinidians eta Ttak taldeekin.

**01:00** Herriko plazan Gaubela taldearekin DANTZALDIA.

## Astlehena 24

**08:15** Herriko plazan TXOKOLATE-JANA.

**08:30** DIANA Arrasateko gaitariekin.

**09:00** ENTZIERROA. Ferrerías kaletik irten, eta Erdiko kaletik eta Iturbidetik pasatu ostean Laubide plazan egongo den zezen-plazan amaituko da. Gero, zaleendako bigantxak izango dira zezen-plazan bertan.

**11:00** San Juan Bataiatzailearen parrokian MEZA NAGUSIA.

**11:00** Arrasateko ERRALDOI eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

**12:00** Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAREKIN KALEJIRA.

**12:00** Herriko plazan OHOREZKO AURRESKUA eta SAN JUAN ZORTZIKOA dantzatuko dituzte.

**12:30** Abaroan 80 urtetik gorako NAGUSIEI OMENALDIA.

**13:00** Monterron parkean KONTZERTUA Arrasate Musikaleko MUSIKA BANDAK.



EKITALDI PILA BAT MONTERRONEN.

### Egitaraua:

*Peña Taurina Vitoriana* (Martín Domingo).

*Rêverie* (Jef Penders). Saxofoia eta banda.

Bakarlaria: Laura Díaz de Gereñu.

*Drummer's Delight* (Henry Mancini).

*Luisa Fernanda* -zarzuela aukeraketa- (Federico Moreno Torroba).

*Dianas de San Fermín* (Juan de Orué).

*Estampas bilbainas* (Ricardo Amiano).

*El Rey León* (Elton John).

*Gora Arrasate* (J. Azurmendi).

*San Juan* (Moldaketak: Juan Arzamendi).

**Zuzendaria: Eduardo Arzamendi**

**Zeziaga.**

**18:30** Zaldibarren koadrilek antolatutako

PILOTA PARTIDUAK.

**19:00** Arrasateko GAITEARIEKIN KALEJIRA.

# eyja

Iturriotz 21 Tel./Faxa: 943 79 03 84  
ARRASATE

## Ondo pasau San Juanak


### etxetresna elektrikoak

### estilo guztietako lanparak zure esku

# King's

Ile apaindegia

Zarugalde 23. ARRASATE  
Tel.: 943 79 84 88



## EGITARUA

**19:30** BERTSO-TRIKI-POTEOA.

**21:00** Herriko plazan DRAGOI JANA. Han erretako dragoia hantxe bertan dastatzeko aukera. Txartelak salgai: AEDn, AEKn, eta Monte eta Iturriotz tabernetan. Salneurria: 10 euro. Antolatzaileak: AED, AEK eta EHE.

**23:15** Herriko plazan EGAN taldearekin DANTZALDIA.

**24:00** Santa Barbaratik SU ARTIFIZIAL ikusgarriak.

**24:30** Monterron parkean RUPER ORDORIKAREN KONTZERTUA.

**04:30** KULERO ETA GALTZONTZILO herri lasterketa

JOLASPARKEA 17:30ak arte.

**17:30** Alde zaharrean OLINPI-POTEOA txarangak lagunduta.

**17:45-19:15** Zaldibarren TRIKIMAILU ESPRESS ikuskizuna.

**19:15** Zaldibarren EGUZKI LARURI AGURRA.

**20:00** Los Pérez de Nochistlán MARIACHI taldearekin KALEJIRA.

**23:00** Herriko plazan Euskadi Gaztearen DISKO FESTA.

**23:00** Monterron parkean LOS PÉREZ DE NOCHISTLÁN mariachi taldearen emanaldia.

## Eguaztena 26

**08:30** DIANA Arrasateko gaitariekin.

## Martitzena 25

**08:15** Herriko plazan TXOKOLATE-JANA.

**08:30** DIANA Arrasateko gaitariekin.

**09:00** ENTZIERROA ohiko ibilbidean. Gero, zaleendako bigantxak izango dira zezen-plazan.

**10:00** UMEAK ETA GAZTETXOAK iratzartzeko DIANA herriko kaleetan.

**11:30** Seber Altube plazan koadrilak elkartuko dira TXARANGAREKIN TXIKITEOA hasteko.

**11:45-12:00** Seber Altube plazatik pasatzen diren umeei eta gaztetxoei, PONPOIAK, MARAKAK ETA BANDERINAK banatuko dizkiete Eguzki Laruri ongietorria egiteko.

**12:00** EGUZKI LARURI ONGIETORRIA Zaldibarren. Gero, jolasparkea (puzgarriak, kart autoak eta lantegiak) 14:30ak arte.

**14:30** HAUR BAZKARIA Zaldibarren.

**14:30** BAZKARIA GAZTETXEAN.

**16:00** Zaldibarren Eguzki Laruren

**09:00** ENTZIERROA ohiko ibilbidean. Gero, zaleendako bigantxak zezen-plazan.

**11:00** Kalejira INCANSABLES TXARANGAREKIN.

**11:00** Arrasateko ERRALDOI eta KILIKIEN KONPARTSAREN irteera.

**12:30** KALEJIRA Arrasateko TRIKITILARIEKIN.

**14:30** Seber Altuben HERRI BAZKARIA. Txartelak salgai: Monte eta Basati tabernetan. Salneurria: 10 euro.

**17:00** Herriko plazan HAUR ANTZERKIA: *Trufaldino*.

**17:00** INCANSABLES txarangarekin KALEJIRA.

**19:30** Herriko plazan SOKA DANTZA.

**19:30** Txosnagunean ROCK KONTZERTUA.

Taldeak: Serial Number eta Jousilouli.

**20:00** Seber Altube plaza inguruan Trapu Zaharra taldearen KALE ANTZERKIA: *El Cuarto Tenor*.

**20:00** TXINPARTA taldearekin DANTZALDIA herriko plazan.




SAN JUAN PATROIAREN OMENEZ SALBE SOLEMNEA IZANGO DA DOMEKAN.

# ZABALA oinetakoa

54 urtean elkarrekin ibili gara

**Ospa ditzagun San Juanak**

Erdiko kalea 18 • Tel.: 943 79 14 27



## Izozkitegia

Gozotegia  
Italiar izozkitegia  
Kafetegia

Iturriotz 7 • Tel.: 943 79 81 68 • ARRASATE

# BITTORI ERRETEGIA

Eguneko menua • Kartako menua  
Especialitateak:  
legatz kokotxak eta txuletak

Araba etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

## Mobiliario ARENZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAETA





udalaitz

Erdiko kale, 42  
ARRASATE  
943 77 00 68





## LURRAREN TAUPADA

**E**gubakoitz eta zapatu gaean, Lurraren Taupada kulturen arteko jaialdia izan zen Monterron parkean. Egubakoitzean, Txatunga Bembe, El Boghaz, Tribu Chaman eta Arrasate Musikaleko Big-Band taldeek hartu zuten esku. Zapatuan, berriz, Los bat, bi, hiru, lau..., Enrike Zelaia taldea, Mercedes Garrote eta Sawana'ko taldeak izan ziren gaueko bederatzi eta laurdenetatik aurrera. Jaialdi ikusgarria izan zen, baina bi egunetan, uste baino jende gutxiago hurbildu zen Monterron parkera.



## DANBORRADA SOINUAK ARRASATEN

**S**an Juan jaien egitarauaren barruan, Umeen Danborrada egin zuten joan den zapatuan. Aurten ere, urtero moduan, dozenaka umek hartu zuten parte Umeen Danborradan. Ume batzuek, lehenengo aldian zuten edozelan ere, lehenengo aldian arren, danborra ondo astintzen dutela erakutsi zuten Arrasateko neska-mutikoei.

## DANTZARIAK KALEAK GIROTZEN

**D**omeka goizean, herriko dantzariak izan ziren Arrasateko kaleetan. Goizeko hamar eta erdietan elkártu ziren Nafarroa etorbidean, eta goiz osoan, Arrasateko kaleak girotzen ibili ziren. Arratsaldeko bostetan, dantza talde guztiek herriko plazan egin zuten dantzan. Argazia goizean atera genuen, Seber Altube plazan.



**ZONE**  
A NATURAL HISTORY

**LAKET**

ARRASATE

Otalora kalea

Tel.: 943 79 82 68

BERGARA

Barrenkalea 35

Tel.: 943 76 03 98

Irala 5

Tel.: 943 76 27 16



*Paraje eder  
baten kokatua*

*Atsedenerako  
behar den  
guztiarekin*

*Enpresa  
bilerak  
egiteko leku  
egokia*

*Dasta ezazu  
gure menurik  
goxoenak*

*Arteaga*

Landetxea

*Arteaga baserria,  
Garagartza auzoa, 37 zenbakia  
20500 Arrasate • Gipuzkoa  
Tel. 943 71 18 81  
Faxa: 943 71 18 82*

*Jai zoriontsuak izan!*



Garibai etorbidea, z/g  
Tel.: 943 79 59 00/943 79 52 23  
Faxa: 943 79 41 11

  
"la Caixa"



Urteko jairik ospetsuenetarikoak igaro dira: San Juanak. Uda hastear dago. Festaren lilura gauez eta egunez. Danborrada, dantzaldiak, ... jo ta ke lehertu arte. San Juanetan, JMA ere jai giroan izan da.

*Guztiekin. Betiko moduan.*

**JMA** 

ALEJANDRO ALTUNA, S.A.

UMEENDAKO

EGUZKI LARU MARTITZENEAN ETA TRUFALDINO EGUAZTENEAN

# Eguzki Laruk ez du kalerik egingo jaietan

## Martitzena umeendako eguna izango da, Eguzki Laruren laguntzarekin

UBANE MADERA

Goizeko hamarretan hasi eta iluntzera arteko jai antolatuko dute herriko gazte-oxoenendako. **Esaterako, Trikimailu** *Espress* saioa izango dute arratsaldean.

**N**agusien moduan, umeak dianaren doinuarekin esnatuko dira sanjuanetako euren jai eguna ospatzeko. 10:00etan izango da hori; gero, 11:45etik 12:00ak bitartean, Eguzki Laruri ongiatorria egiteko prestatuak egingo dituzte: horre-

la, umei borlak, bandera-txoak eta marakak banatuko dizkiete; gero, denak Zaldibarrerantz joango dira, hara iritsiko da-eta, Txatxilipurdiren eskutik, Eguzki Laru, 12:00etan. Ongietorria egiteko, Txatxiartistek *Eguzkiaren Bila* kantua eta dantza prestatu diote; horren ondoren, lantegietan, puzgarriekin, kart autoekin, eta abarrekin jolasteko aukera izango dute umeek 12:15etik 14:30era; eta hori guztia egin eta gero, denek batera bazkalduko dute Zaldibarren (eguraldi txarrarekin, Laubideko arkupeetan). Rebeke Torres Txatxilipurdiko Kultur Zerbitzuetako arduradunak



Besteak beste, lantegiak, puzgarriak eta kart autoak izango dituzte Zaldibarren.

adierazi digunez, iaz arte ogitartekoak jaten zituzten, baina iaz bazkaria egitea erabaki zuten, eta, arrakastatsua izan zenez, erre-

pikatzea erabaki dute.

**ARRATSALDEAN**

Arratsaldeari ere jolasekin ekingo diote: 16:00etatik

17:30era, puzgarri parkea abian ipiniko dute eta soka saltoa eta Udako Olinpiadak izango dira: uretako jolasak, betiko jolasak... Bukatzeko, 17:45etik 19:15era, *Trikimailu* *Espress* saioa zango dute: tren bat irudikatuz, munduko leku askotako jolasak egingo dituzte; 19:15ean esango die agur umei Eguzki Laruk, hurren arte.

**lazko arrakasta ikusita, aurten ere umeendako bazkaria antolatu du Txatxilipurdi elkarteak Zaldibarren**

Zaldibarren-plazan

**Martitzena 25  
12:00etan  
Eguzki Laru**

**Eguaztena 26  
17:00etan: haur  
antzerkia**

## Eguaztenean, haur antzerkia

**M**artitzenaz gain, eguaztenean ere izango dute zer egin umeek; izan ere, 17:00etatik aurrera eta herriko plazan, *Trufaldino* izeneko **Erdi Aroko** pertsonaia-**ren gorabeherak** kontatuko ditu **Hankagorri antzerki taldeak**.

Eta esan beharra dago antzezlan ikusgarria izango dela, besteak beste, sei metroko gaztelu bat muntatuko dutelako herriko plazan. *Trufaldino*-k gaztelu horretan antolatuko duten **gozogileen arteko lehiaketa baten istorioa** kontatuko die umei. **Maskarak eta denetariko jantziak izango dira eta kantu eta dantza ugarirekin apainduko dute haur antzerkia; hor, esaterako, ikusleen parte hartzea lortu gura dute Hankagorrikoek.**

**Aktore ezagunek egiten dute lan antzezlanean; esaterako, Anjel Alkainek.**

## OINETAKOAK

# Zubizaneta



## GALERIA 44

**Denda berezia  
Ondo pasatu San Juanak**

Zerkaosteta 8 Tel.: 943 - 79 90 50 • ARRASATE




**PATRICIA  
CLARKS  
YANKO  
MASCARÓ  
LOOKY  
24 HRS  
NOD  
PIELSA  
CATS  
KOLLFLEX  
PLUMERS  
WONDERS**

# Year

Biteri 13 • ARRASATE • 943 79 21 71  
Barrenkalea 9 • BERGARA • 943 76 22 86

Maalako Errabala 27-behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 59 99  
E-posta: udalatx@euskalnet.net  
Web orria: www.euskalnet.net/udalatx

- Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
- Tasazioak
- Aholkularitza Fiskala
- Errentamenduak
- Kontratuak



San Juan zoriontsuak izan!

# HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

# MURUAMENDIARAZ GOZOTEGIA

*Jai goxo-goxoak izateko*

Erdiko kale 28 • Tel.: 943 79 15 34



ELKARRIZKETA

'ESAN'

GRAFITIGILEA

# “Grafitigile baten helburua da bere grafitiak ahalik eta jende gehienak ikustea”

Txosnen gunean

Zapatua 22  
16:00etan

Grafiti erakusketa.

XABIER URZELAI

Azkeneko urteotan grafitiek geroago eta indar handiagoa hartu dute gurean. Arrasaten hainbat lagun ari dira herriko hormak margotzen, eta gu *Esan*-ekin izan gara. Gurago du izenik ez ematea, guztiek ez dute-eta onartzen bere lana.

za asko *esan* nahi dituelako.

**Zein da grafitigile baten helburua?**

Norberaren grafitiak ahalik eta jende gehienak ikustea; horixe da grafitigile baten helburua. Jendeak hormetan, eraikinetan, trenetan... ahalik eta leku ikusgarrietan margotzea izaten du helburu. Aldizkari batzuetan, helikoptero, hegazkin eta itsasontzi militarretan egindako grafitien argazkiak ikusi izan ditut. Hori dema da.

**Zer margotuko zenuke gustura?**

Tren bat margotzea gustatuko litzaidake. New Yorkeko metroan ere gustura egingo nuke grafiti bat.

**Zaletasun garestia izango da, ala?**

Bai, nahiko garestia. Pote bakoitzak 3 euro inguru balio du, eta grafiti bat egiteko hainbat kolore erabiltzen ditugunez, nahiko garestia da. Durangon ertzain batek pote guztiak kendu zizkidan, 30 pote, guztira. Holakoak gertatuz gero, zaletasun garestia da.

**Egun, arazoak izaten dira kalean margoak egiteagatik. Izan duzu horrelako arazorik?**

Hemen margotzen dudanean ez. Kanpora joanda, berriz, izan daiteke arazoren bat edo beste, baina hemen gaitza izaten da.



XABIER URZELAI

Txosnen guneaz gain, Ekaitz tabernan ere egingo dituzte grafitiak.

Herritar batzuek horrela jarraitzeko esaten didate, etxeetako hormek, margo-tuta, bizitasun handiagoa izaten dutela. Artista bat

naizela ere *esan* izan didate, baina holako *txapuzarik* euren etxe azpian ez egiteko ere entzun behar izan dut; hortaz, denetarik

**“Batzuek artista bat naizela *esan* didate. Beste batzuek, berriz, holako ‘txapuzarik’ euren etxe azpian ez egiteko”**

**“Umeei eskolak eman nizkien behin. Ordu eta erdian isil-isilik egon ziren guztiak. Oso gaitza ei da hori lortzea”**

dago. Nire helburua ez da inori kalte egitea, eta ez dut ezer iraingarririk jartzen. *Esan* berba baino ez dut margotzen, nahiz eta pertsona nagusi askok ez duten, inondik inora, *Esan* berba irakurtzen.

**Izango duzu pasadizoren bat edo beste.**

Bai, bat edo beste badaukat, bai. Behin, Oñatin geundela, horma bat margotzen hasi eta euria hasi zen. Aterpe baten sartu ginen, eta ondoan zegoen garabi baten margotzea bururatu zitzaigun. Hasi ginen, eta berehala etorri zen gizon bat, uluka. Ni ez nintzen konturatu, baina, ondoko lagunak *esan* zidanez, uniforme bako polizia bat zen. Irtenbide onena izango zela pentsatuta, korrika hasi ginen.

**Eskatu dizute inoiz denda, taberna edo bes-telako lekuren baten gra-**

**fitiren bat egitea?**

Bai. Hainbat dendatan grafitiak egiteko eskatu didate. Orain gutxi, Almenen izan nintzen, ikasleei grafitiak zelan egiten diren erakusten. Ordu eta erdian ikasleak isil-isilik egon ziren grafitia zelan egiten nuen ikusten, eta irakasle-en esanetan, gutxiak lortu dute 30 neska-mutiko ordu eta erdiz isilik edukitzea.

**Aurtengo sanjuetan grafitiak zelan egiten dituzuen ikusteko aukera egongo da.**

Bai, grafiti erakusketa egitea pentsatu dugu. Horrela, jendeak gertuagotik ikusiko du zelan egiten diren grafitiak. Donostiako eta Iruñeko grafitigileak etorriko dira, eta oso onak dira grafitiak egiten. Grafiti erakusketa txosnen gunean izango da, baina Ekaitz tabernan ere egingo dugu zer edo zer.

## J. Markiegi.

Gizonezkoen moda

Olarte 2  
Tel.: 943 79 15 32

JAI ZORIONTSUAK



A R R A S A T E

# San Juan girorik onena

## BEARTI2Een

Ekainaren 23an gaueko 01:00etatik aurrera

### D.J FESTA

*D.J Mari, D.J Manu 16U, D.J Patt*

*baita BEARTI2E-ko D.J-ak:*

*D.J Fleky, D.J e.k., D.J YosU*

Ekainaren 24an, 25an eta 26an ere jarraitu festa geurean

Bertize  
Azeri kalea 7- ARRASATE



**KIROLAK**

JOAN DEN ZAPATUAN, WUSHU KUNG FUA IZAN ZEN IKUSGAI SEBER ALTUBEN

**15**  
zapatua

**J**oan den zapatuan, Wushu Kung Fu erakustaldia egin zuten Seber Altuben. Uztailaren 20an eta 21ean, Europako Wushu Kung Fu Txapelketa jokatu da Arrasaten, eta joan den zapatuan ikusitakoari esker, herri-tarrek Wushu Kung Fu kirola hobeto ezagutzeko aukera izan zuten. Erakustaldia egitera Euskal Selektzioako partaideak etorri ziren, Gasteiztik, batik bat. Selektzioa, ordea, Euskal Herriko lurralde guztietako kideek osatzen dute.

Wushu Kung Fua Txinako borroka-arte da. Hainbat borroka arteren batuketara esan daiteke, borrokarako teknika hobeak lantzeko asmoz. Hala ere, Wushu Kung Fu borroka-arte borrokarako teknika baino askoz gehiago da, askorendako, bizi izateko modu bat, filosofia ezberdin bat. Kirol hori egiteko ez da aparteko ezer behar; izan ere, kirol hori norberaren ezaugarrietara moldatzen da. Saioan egoteko gimnasiaren antzekoa



Joan den zapatuan, Wushu Kung Fu kirola gertutik ikusteko aukera izan zuten Seber Altuben.

izatetik, lehiarako borroka-arte izatera.

**SELEKTZIO OFIZIALA**

Wushu Kung Fu kirolekoa

da Euskal Selektzio ofizial bakarra. Euskal Herriko taldea urrian Japonian jokatu zen Munduko Txapelketan izan zen, eta eus-

kaldunek lan polita egin zuten: urrezko eta zilarrrezko domina bana eskuratzearaz gain, gainerako partaideek ere lan polita egin

zuten. Munduko Txapelketa esperientzia ahaztezina izan ei zen, eta Japoniatik bueltatu bezain laster, Europako Txapelketa Eus-

kal Herrian antolatzea otu zitzairen. Zapatuak akrobaziek uztailean izango den txapelketa ikusgarria izango dela aurreratu ziguten.

**TTUKUN**

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**UNZUETA**  
J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrillan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95



**Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora lizentziaduna 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

**ORTO + LAGUN**

O R T O P E D I A

Ondo ibili jai xetan  
larrei okertu barik!!

Kontzezino 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 89 34



Erakusketa eta biltegia:  
Kale txikia 3 behea (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

**Metal aroztegia eta PVC**

- Leihoak eta itxierak
- Egur aroztegia
- Leihoak
- Ateak
- Horma-armairuak
- Armairu-fronteak
- Mota guztietako zoruak
- Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahaiak eta aulkiak



# Citroën C3

Nabarmenki berria



Azkenean ere, hemen dago.  
Nabarmenki apurtzailea den autoa heldu da.  
Barrualdea eta kanpoaldea, zu liluratzeko pentsatuak.  
Nabarmenki berritzailea: aparkatzeko laguntza elektronikoa,  
direkzio lagundu elektronikoa, aire-girogailu digitala...  
Nabarmenki gaztea: irrati CD ekipoa, 6 bozgorailurekin.  
Nabarmenki praktikoa: maletategi modulagarria (Moduboard)

Nabarmenki oldartsua: 110 ZPrainoko motorrak.  
Nabarmenki segurua: ABS balaztatze banatzaile elektronikoa  
arekin eta urgentziako balaztatzeari laguntza, ESP (egon-  
kortasunaren kontrol dinamikoa) eta 6 aire-zaku.  
Eta pribilegiatu sentitu gura baduzu, ikus ezazu mundua  
bere sabai panoramikoaren bitartez.  
CITROËN C3 berria. Nabarmenki ezberdina.

 **CITROËN C3**

9.430 €-tik aurrera

[www.citroen.es](http://www.citroen.es)

Ekipamendua bertsioen arabera. Salneurria gomendatua C3 1.1i modeloarentzako (BEZ, matrikulazio zerga, garraioa, merkaturatze-promozioa eta gasolina autoendako Prever Plana barne). Hori guztia aplikagarria izango da operazioan parte hartzen duten salmenta lekuetan. Baliagarria hilabele amaiera arte stock-ean dauden autoetan, penintsulan eta Balear Uharteetan. Citroën Informazioa: 902 44 55 66

CITROËN - EK EDOZER EGIN DEZAKE ZUGATIK

Etor zaitez:

**CHAPIME TAILERRAK SCL** Citroën-eko Kontzesionario Ofiziala

San Andres auzoa 5 Tel.: 943 79 45 22. ARRASATE.

  
**CITROËN**

KIROLA

ARKU TIROKETA TXAPELKETA

# Arku tiroketa praktikatzeko aukera egongo da jaietan


Txapelketa egingo dute Zaldibarren eta, horrez gain, gura duenak proba egiteko aukera izango du

JULEN IRIONDO

Arrasate Arkulariak SP-10 taldeak Arku Tiroketa Txapelketa antolatu du Sanjuanetarako. Txapelketa bukatuta, zale gehiagoko egite aldera, gura duenak proba egin ahal izango du.

**G**ure artean ez da oso kirol ezaguna arku tiroketa. Arrasaten, baina, badu zale talde bat. Arrasate Arkulariak SP-10-ek kirol hori ezaguturazi guran, txapelketa antolatu dute San Juan jaietan.

Domekan, ekainaren 23an, izango da txapelketa, Zaldibarko pilotalekuan. Gipuzkoa eta Bizkaiko taldeak ariko dira lehian, bost bat, guztira. *Robin apple* jokamoldean ariko dira;



Arkuarekin eta geziekin proba egin gura duenak domekan Zaldibarko pilotalekura hurreratu baino ez du.

arku tiroketako jokamolde ikusgarriena da hori: 18 metrora jarrita, arkulariek puxika bi eta uztai eta sagar bana izaten dituzte helburu. 18:30ak aldera, Zaldibarrera hurreratzen denak arkua hartu eta proba egiteko aukera izango du.

Herrian zale gehiago egin eta taldea handitzea da Arrasate Arkulariak SP-10 taldearen nahia. Duela hiru urte sortu zuten taldea, eta egun, dozena inguru dira. Eguenero batzen dira, 18:30etik 21:00etara, San Viatorko Ikastetxean.

Mikel Lasa taldeko kideetako bat da; Mikelek gonbita egiten die herritarrei eguenetan San Viatorko joan eta proba egiteko. Mikele hitzetan, arku tiroketa egiteko ez da baldintza berezirik behar: "Arku tiroketak ez du aparteko maila fisi-

Zaldibarren

**Martitzena 23**  
**17:00etan**

Arku Tiroketa Txapelketa. Gero, edonork probatu ahal izango du kirol hori.

korik eskatzen. Konstantea izatea da kontua. Bertin egin daiteke kirol hori zortzi urterekin nahiz hiruurogeirekin". Anima zaitzete!

**XAKE ITXIKO SARI BANAKETA**

Domekan, 16:00etatik aurrera, Arrasate Hiria II. Xake Itxiaren amaiera ekitaldia egingo dute San Andres taldearen egoitzan.

Aurrena, Xake Azkarreko Txapelketa egingo dute. Bertan azken asteotan txapelketa itxian zein irekian ibili direnek eta Aretxabaletako xakelariak hartuko dute parte. Hori bukatuta, sariak banatuko dituzte. Gogora ezazue berriki bukatu den Arrasate Hiria II. Xake Itxian Cristóbal Limeres gemikarra izan dela txapelduna, Borja Zamarbideren eta Josu Torayren aurretik.

IKER BARANDIARAN



*Cihana*  
*Apainketak*

*Etxean*  
*sentitzearen*  
*plazerra*

Arrasate pasealekua 8  
Tel.: 943 774 56  
ARRASATE





# EM AHOLKULARITZA ETA ASEGURUAK MENDIETA



## RAC VASCO NAVARRO

- **Aholkularitza fiskala, laborala eta kontabilitate-aholkularitza.**
- **Ibilgailuen aseguruak, bizi-aseguruak eta bestelakoak**

Kontzezino, 6 Behea • 20500 ARRASATE • Tel./Faxa.: 943 79 86 77

Ondo Pasau San Juan Jaixak



# NACEX

Telefonia: 943 79 92 77 / Orokorra: 900 100 000  
[www.nacex.com](http://www.nacex.com)



Urtetan bidea  
elkarrekin egin  
dugulako, eskerrik  
asko eta zorionak,  
Arrasate!

# Beatriz oinetakoa

Erdiko kalea 11 • ARRASATE • Tel.: 943 79 14 33

JANTZIDENDA

www.LASAGABASTER.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55



ETXE APAINKETA

**KIROLAK**

**SANJUANETAN PILOTA IZANGO DA NAGUSI UARKAPEN**

# Sanjuanetan, arrazoiak soberan Uarkapera joateko

**Zapatua 22  
18:00etan**

Pilota jaialdia.

Koka - Patxi Ruiz

vs


Olaizola II.a - Zearra

**Koadrila Arteko Txapelketa, Kluben Arteko Txapelketa eta pilotari profesionalak izango dira sanjuanetan**

XABIER URZELAI

Sanjuanetan Uarkapeko pilotalekuan hainbat hitzordu egongo dira; izan ere, jaietan hainbat pilota partidu jokatuko dituzte. Hortaz, sanjuanetan pilota izango da nagusi.

Zapatuan eta domekan, Uarkapeko pilotalekuak ez du atsedenik izango. Zapatuan, goizeko hamarretatik aurrera, Kluben Arteko Txapelketa jokatu da. Denera, hamabi herritako pilotariak ariko dira nor baino nor: Bizkaitik, Abadiño eta Elorrioko pilotariak etorriko dira; Arabatik, Amurrioko eta Zaramagako ordezkariak izango dira; Nafarroako pilotariak ere izango dira, Altsasukoak eta Olaztikoak, hain zuzen ere; Gipuzkoatik, sei herritako ordezkariak izango dira, Aizarnabalgo, Azkoitiko, Soralezeko, Eskoriatzako, Aretxabaletako eta Arrasateko pilotariak jokatu



Domeka goizean, etxeko taldeko maila guztietako pilotariak txapelketa jokatu dute.

dute. Benjamin, alebin eta infantil mailetako pilotariak izango dira.

**KOADRILARTEKO TXAPELKETA**  
Kluben Arteko Txapelketa amaitu bezain pronto, Koa-

**Zapatu goizean, Klub Arteko eta Koadrila Arteko finalak jokatu dituzte. Arratsaldean, berriz, pilota jaialdia izango da**

drila Arteko Txapelketa jokatu da.

Partidu bi izango dira. Lehenengo partiduan hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dira. Horren ondoren, txapelke-

tako finala jokatu da. Antolatzaileen esanetan, txapelketan parte hartu duten bikote guztiek izango dute saria. Hori dela eta, finala ikustera joateko eskatu dute antolatzaileek, sari guztiak banatzeaz gainera, pilotariak jendearen berotasuna izan dezaten.

**PILOTA JAIALDIA**

Bestalde, zapatuan, arratsaldeko seietaatik aurrera, pilota jaialdia izango da Uarkapen. Lehenengo, bigarren mailako pilotariak ariko dira. Gero, lehen mailako pilotariak jokatu dute: Kokak eta Patxi Ruizek Olaizolaren eta Zeurraren kontra neurtuko dituzte indarrak.

Pilotarekin amaitzeko, domekan, goizeko hamarretatik aurrera, etxeko taldeko maila guztietako pilotariak Herriko Txapelketa jokatu dute. Aurrebenjamin, benjamin, alebin, infantil, kadete, gazte eta senior mailetako pilotariak jokatu dute. Aukera polita izango da, hortaz, herrian daukagun harrobia ikusteko.

**Elxerako altzariak eta osagarriak**

**eya**  
**Altzariak**  
Inazio Zuloaga 4  
943 79 05 07  
ARRASATE

**Dekorazioan  
espezializaturiko  
denda**

**Sukalderako altzariak  
Ondo pasau San Juanak!**

**ALNO**

**J. RAMÓN OTAMENDI**  
**HARATEGIA**

**Berezitasunak:**  
**Hemengo okela, buzkantzak,  
txorizoa eta aurrekozinatuak.**

Ferrerias 20 • ARRASATE • Tel.: 943 79 62 28

**Takoi**

- Zapata konponketak
- Giltzen kopiak
- Urrutirako aginte tresnen kopiak

Kalealdea 2 -behea (Larreako etxeak)  
Tel.: 943 79 84 95

KALE GIROA

KONPARTSA, TRIKITILARI, ANTZERKI ETA TXARANGAK KALE GIROA BEROTZEN

# Ekintza asko jaietan kaleak girotzeko

**Aurten ere hainbat talde eta konpartsa izango dira jaiak, egunez, behera egin ez dezaten**

XABIER URZELAI

Jaiak kalean ospatzen ditugu, eta are gehiago, ekainaren amaieran badira. Kaleak egunez girotzeko, ordea, hainbat ekintza izango dira San Juan jaietan.

Sanjuanetan kaleak girotzea ez da gaitza izaten, jendea parrandarako gogoz egoten da-eta; baina, hala ere, lan nekeza da. Jaiak hainbat egun iraungo dute, eta Arrasateko kaleetan giro aparta gauez bakarrik egon ez dadin, egunez ere

ekintza asko izango dira. Lan hori, konpartsa, kalejira, trikitilari eta beste talde batzuen esku egongo da.

## KALE GIRO APARTA

Domekan, Arrasateko txistularien esku egongo da arratsaldeko lehenengo orduetatik kaleak girotzea. Arratsaldeko hiruretan hasiko dira txistua jo eta kaleak berotzen. Horren ondoren, arratsaldeko laurutan, hain zuzen, herriko plazan etxafuegoak eta bonba japoniarrak izango dira.

Ondorengo orduetan, kirolak, koadrilen ekintzak, Salvea eta Errementari dantza izango dira eguneko protagonista nagusi.



ARRASATE PRESS

Aurten ere Arrasateko trikitilarien esku egongo da, besteak beste, herriko kaleetako giroa berotzea.

## Kaleko giroa berotzen izango direnak

### DOMEKA, 23

15:00 Txistulariekin diana.  
16:00 Herriko plazan etxafuegoak eta bonba japoniarrak.  
01:00 Herriko plazan Gaubela taldearekin dantzaldia.

### ASTELEHENA, 24

08:30 Diana Arrasateko gaitariekin.  
11:00 Erraldoi eta kilikien konpartsa.  
12:00 Musika Bandaren kalejira.  
12:00 Herriko plazan Aureskua eta San Juan Zortzikotea dantzak.  
19:00 Gaitariekin kalejira.  
23:15 Herriko plazan Egan taldearekin dantzaldia.

### MARTITZENA, 25

08:30 Diana Arrasateko gaitariekin.  
17:30 Olinpi-poteoa txarangarekin.  
23:00 Euskadi Gazteko Disko Festa.

### EGUAZTENA, 26

08:30 Diana Arrasateko gaitariekin.  
11:00 Kalejira Incansables txarangarekin.  
11:00: Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa irteera.  
20:00: Trapu Zaharra taldearen eskutik kale antzerkia: *El Cuarto Tenor*.  
20:00: Txinparta taldearekin dantzaldia.

Seber Altuben

**Eguaztena 26  
20:00etan**

Kale antzerkia: 'El Cuarto Tenor'

Eta gualdean, berriz, goizeko ordu batean, hain justu, Gaubela taldeak dantzaldia egingo du.

Asteleheneko lehenengo orduan, goizeko zortzi eta erdietan, diana joko dute Arrasateko gaitariekin; goizeko hamaiketan, Arrasateko erraldoi eta kilikien konpartsa irtengo da. Eta arratsaldea ere ez da nolanahikoa izango: zazpietan, herriko gaitariekin kalejira izango da, eta gero, bertso triki-poteoa; gaueko hamaiketan, Egan taldeak dantzaldia egingo du. Jarraian, Santa Barbaratik su artifizialak botako dituzte. Hurrengo egunean ere, martitzenean, gaitarien esku egongo da diana, eta txikiteo ofiziala goizeko hamaika eta erdietan hasiko da, Seber Altuben. Eguaztenean, diana ordu berean izango da; Incansables txarangak eta Arrasateko trikitilariak kalejira egingo dute goiz partean; arratsaldeko zortzietan, kale antzerkia egingo du Trapu Zaharra taldeak. *El Cuarto Tenor* lana antzezuko dute, eta Seber Altube plazan izango da.

ARQUERO  
CONSTRULAN S.L.



## ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA

Tel.: 943 79 01 51 • Poltsikokoa 608 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26

Faxa: 943 77 15 03


## DISCOPOLIS



Juan Carlos Gerra 1 behea  
943 77 02 13



Arbolapetan!  
Olarde, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 27



**San Juanetan  
alda ezazu  
zure orrazkera**

Kontzezino 4 - behea  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 09

## BOLIÑETE

OILASKO ERRETEGIA  
Bertan jateko edo eramateko.

San Juan jai zorientsuak  
opa dizkie bere bezeroei

Zarugalde 24 • ARRASATE • Tel.: 943 79 39 91

arbolapeta



ELKARRIZKETA

FRANCIS DIEZ

DOCTOR DESEO TALDEKO ABESLARIA

Monterronen

**Zapatua 23**

**22:30ean**

Numen eta Anger taldeekin batera joko dute.

# “Monterron parkea lehendik ezagutzen dut, eta hantxe abestu gura dut”

IKER BARANDIARAN

**Doctor Deseok fiabardura asko dituen pop musika egiten du, eta hitzek sentsualtasun handia izaten dute. Zale asko dituztenez, jende asko batuko da Monterronen. Taldeko abeslariarekin, Francisekin, egon ginen berbetan.**

ko horretan barrurago begiratzen dugu, barruko minak kanpora atera ditugu... Bestalde, disko horretan elektronika eta gitarren soinua hobeto uzartzeko gai izan gara. Gainera, Extremoduroko Iñaki Uohok daukan estudioan grabatu dugu, lasai-lasai eta inolako presio barik. Horrek asko laguntzen du.

**Diskoetxea aldatu duzue; zer dela eta? Eta zer moduz diskoetxe berriarekin?**

Ez genuen Discos Suicidas utzi gura; hasieratik eurekin egin dugu lan, baina diskoa grabatzera gindoazenean, diskoetxea diruz oso gaizki zebilen. Hala, Gor etxearekin egin genuen berba eta diskoa atera ziguten. Gor etxeko arduradunak, Goñi anaiak, aspalditik ezagutzen ditugu eta gustura gaude.

**Azkeneko urteetan ikusleen oso erantzun ona izan duzue...**

Bai, egia da. Ez genuen horrenbeste espero. Atsedena egin genuenetik hona, aretoetan jotzen



**“Aurreko kontzertua oso berezia izan zen”**

**“Azken diskoan barruko minak kanpora atera ditugu”**

gabiltza eta orain arteko guztiak bete egin ditugu. Hala ere, Euskal Herrian ikusle fidelak izatearekin konformatzen gara.



**Zer ikusiko dugu Monterronen?**

Norbaitek esan zuen guk oldarkortasuna, samurtasuna eta sexualitatea nahasten ditugula. Horrela laburbil daiteke. Bestalde, Arrasaten, eta, batez ere, Monterron parkean jotzeko gogo handia daukat. Parkea ezagutzen dut, eta aspalditik daukat leku horretan kantatzeko eta jotzeko gogoia. Ea animatzen zareten!

**MENDIZABAL** okindegia

*egunero zure alboan!*

**ARRASATE**  
Seber Altube, 2  
943 79 89 60

**TOLDOS**  
**LETE** C/B

Kataide industrialdea 14 Musakola • ARRASATE  
Tel.: 943 79 23 83 Faxa: 943 77 04 45

**Eguzkiari aurre egiten diogu  
inork baino hobeto**



MUSIKA

RUPER ORDORIKAK DISKOA AURKEZTUKO DU

# Aspaldiko partez, Arrasaten joko du Ruperrek

Ruper Ordorika musikari beteranoak atzoko eta egungo kantuak joko ditu Monterronen

IKER BARANDIARAN


Ekainaren 24an, gaueko hamabi eta erdietatik aurrera, Ruper Ordorikak Oñatiko musikari ezagunak kontzertua emango du Monterron parkean.

Ruper Ordorika oso musikari eta kantari ezaguna da, gure artean ia aurkezpenik behar ez duena. Oñatiko musikaria aspaldi ez da Arrasatera etorri, eta San Juan jaietan bere gaurko eta aspaldiko kantuak entzuteko aukera egongo da. Oñatiko

kantariak dagoeneko ibilbide luzea egin du. 1980. urtean *Hautsi da anphora* diskoa kaleratu zuenetik hona, geratu barik ibili da, eta kontzertuak ematen eta diskoak kaleratzen jarraitu du.

#### KANPOAN EZAGUNA

Ruper Ordorikak bederatzi disko kaleratu ditu. Lehengo hirurak Elkar diskoetxearekin: *Hautsi da anphora*, *Ni ez naiz Noruegako errege* eta *Bihotzerreak*. Gero, Madrilera jo zuen, edo, Madrildik Ruperren bila etorri ziren: *Ez da posible*. Handik aurrera, Elkarrekin beste disko bat kaleratu zuen arren, Madrilgo Nuevos Medios diskoetxe



Ruper Ordorikak Monterrogo eszenatoki paregabearen eskainiko du kontzertua.

berezituarekin lan egiten ibili zen. 2000. urtean, Esan Ozenkirekin lanean hasi zen eta orduetik hona, Eus-

kal Herrian dabil lanean. Euskal Herrian oso kontzertu izan duten musikaria izanda ere, azkeneko urte-

etan jarraitzaile gehiago bereganatu ditu. Bestalde, Espainiako Estatuan ere badu oihartzuna. Horrez gainera, zuzenean Mugalaris taldearekin ibiltzen bada ere, azkeneko diskoak grabatzeko orduan, AEBetako musikari ezagunekin egin du lan. Tartean, Lou Reed-en baxulari zen Fernando Saunders-ekin ere.

**1980. urtea ezkerro, bederatzi disko kaleratu ditu Ruper Ordorika oñatiarrak, Madrilen zein Euskal Herrian"**

Monterronen

Ekainaren 24an  
00:30ean

## Herriko taldeek ere joko dute

Ruper Ordorikaren kontzertuan ez du beste talderik joko. Ekainaren 22an, ordea, Doctor Deseoren aurretik, Arrasateko talde bi ariko dira taula gainean: Anger eta Numen.

Numen 1997an sortu zen, Musakolan. Taldea sei musikarik osatzen dute. *Black-death* musika egiten dute eta Espainiako Estatuan eta atzerrian oso kritika onak jaso dituzte. Villa de Bilbao lehiaketa ospetsurako sailkatu ziren, eta 2001. urtean, diskoa kaleratu zuten.

Anger ere 1997an jaio zen, Musakolan hori ere. *Boskotea da eta hardcore-metal* musika egiten du. Oso kritika onak jaso ditu. Villa de Bilbao lehiaketarako sailkatu ziren, eta *Gara* egunkariaren bitartez CD bat kaleratu dute. Geroago eta ospe handiagoa dute.

# Jose Mari Salegi

## HARATEGIA-URDAITEGIA

Ondo pasau jaiak!

Olarte kalea 20 Tel.: 943 79 45 55



# AREITIO kirolak



San Juan zoriontsuak izan!

Zarugalde, 35 Tel.: 943 79 38 38

25 URTE ZUEN ARTEAN

20.500 ARRASATE





**Azkar irekitzen diren  
ate biribilduak**



**Oinezkoen ateentzako  
sistema automatikoak**

- **Garajeko atepak**
- **Burdinazko Pertsianak**
- **Automatismoak**

Urrutiko aginte tresna homologatuak eta horien mota guztietako kopiak

Konponketak

**JUBAR**<sup>®</sup>  
ATEAK S.L.

Kataide industrialdea 18  
110 Postakutxa  
ARRASATE  
jubarateak@euskalnet.net

**Egur antzeko panela:**

- Bukaera egur antzekoa
- Kanpo txapa aluminiozkoa



# IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO-IKASTAROAK

## **MULTIMEDIA-SISTEMA**

- 09:00etatik 21:00etara, etengabeko ordutegia
- Mintzapraktika
- Ikasteko ordu mugarik gabe
- 17 urtetik gorakoentzat

## **2 ORDUKO IKASTARO TRINKOAK TALDEKA**

- Goiz eta arratsaldeko ordutegia
- Haurrak, gazteak eta helduak

## **IKASTETXEKO IRAKASGAIEN LAGUNTZA-ESKOLAK**

- Matematika, hizkuntza, euskara, ingelesa

uda honetarako

Jai zoriontsuak!!




**Donostia-San Sebastián**

Zubieta, 26.  
Tel.: 943 43 31 02

**Vitoria-Gasteiz**

Florida, 8A.  
Tel.: 945 15 01 55



**Arrasate**  
Araba Hiribidea, 4.  
Tel.: 943 71 20 55

**Oñati**  
Olakua, 14.  
Tel.: 943 71 60 00



TABERNETAKO EKITALDIAK TABERNARI BATZUEN ETA GAZTETXEAREN EGITARAUA ERE BADAGO

# Tabernariak eta gaztetxeak egitaraua prestatu dute

Ekainaren 25ean, bederatzi kontzertu eta grafiti erakustaldia antolatu dituzte

IKER BARANDIARAN

Azkeneko urteotan San Juanek izan duten beherakadarekin arduratuta, herriko zenbait tabernarik eta gaztetxeak egitarau zabala antolatu dute ekainaren 25erako.

Azkeneko urteotan San Juan jaiek beherakada nabarmena izan dute. Arazo hori saihesteko asmoz, herriko zenbait tabernarik eta gaztetxeko batzarrak egitarau zabala antolatu dute ekainaren 25erako (martitzena), jai giro handiagoa lortzeko.

Duela zenbait hilabete, Ekaitz, Iluntz, Etxerat, Irati, Basati, Biona, Iturriotz eta Jai-Zale tabernetako tabernariak eta gaztetxeko batzarkideak batzen hasi ziren eta, hasieran, denon artean gauza bakarra antolatzea pentsatu zuten. Geroago, ordea, iritzia aldatu zuten. Hala, arratsaldean taberna bakoitzean ekitaldi bat egin eta iluntzean gaz-



IKER BARANDIARAN

Ekainaren 25ean, herriko talde mordo batek joko du Alde zaharreko tabernetan. Irudian, Arkada Social.

tetxean kontzertu bat egingo da adostu zuten.

**BEDERATZI GUNETAN BANATUTA**  
Tabernariak eta gaztetxeko batzarkideek ez dute Udalaren laguntzarik jaso.

**Zazpi tabernetan kontzertuak emango dituzte, beste baten grafiti erakustaldia izango da eta gauean, EH Sukarra gaztetxean**

Dena dela, Jai batzordearekin harremanetan izan dira, euren asmoa jakinarazteko eta jai bultzada emateko.

Azkenean, tabernariak eta gaztetxekoek antolatu

Erdialdeko zortzi tabernetan eta gaztetxean

**Martitzena 25  
18:00etatik aurrera**

duten egitaraua aspaldi intsumisioek antolatzen zuten Intsumiso Egunaren oso antzekoa da.

**GRAFITIAK ETA MUSIKA**

Ekainaren 25ean, Koadriaren Egunean, egitarau zabala egongo da: 18:00etatik aurrera, Iturriotz tabernan DJ Kaietek musika jarriko du; ordu berean, Basati tabernan Septeciak kontzertua emango du; apur bat geroago, 19:30ean, Jai-Zale tabernan Versus taldeak joko du.

18:00etan, Irati tabernan Enboskada taldeak kontzertua emango du; eta 19:00etan, Biona tabernan The Clash taldearen kantuak joko dituen Los Teklas taldea ariko da; Etxerat tabernan, 19:00etan, (Spank)2 taldea ariko da; eta Iluntz tabernan, 18:00etan, Arkada Socialek kontzertua emango du.

Ekaitz tabernak, berriz, grafitigileak eramango ditu. 18:00etatik aurrera egingo dute erakustaldia grafitigileek; bukatzeko, 22:00etan, gaztetxean EH Sukarrak joko du.

NISSAN PRIMERA BERRIA  
ADIMENAK ADIMENA ERAKARTZEN DU

NISSAN PRIMERA berriaren eta orain arte zeuden autoen arteko edozein antzekotasun kointzidentzia hutsa besterik ez da. Diseinu sendoko autoa. Kontrol-panelak erdian. Autoen arteko distantzia neurtzeko kontrol inteligentea. Nabigatzeko DVD sistema. Atzeko ikuspegiko kamera. Auto berria baino gehiago da, autoa ulertzeko beste era bat. Inteligentzia era berria.

Aurreikuspenak **GAINDITZEN**


**NISSAN**  
SHIFT Expectations

ALDIBI AUTOAK, S.A.  
ZIGARROLA KALEA, 1 - TEL. 943 71 20 02 - 20500 ARRASATE



# N & N sol

Solarium eta Estetika Zentroa



### Zerbitzu osagarriak:

Mota guztietako tratamendu estetikoak  
Depilazioa  
Manikura, pedikura  
Gel-azazkalak  
Permanenteak eta betileen tindatzeak

### Solariumerako bonuak:

Saio bat 5 €  
10 saioko bonua 42 €  
20 saioko bonua 72,5 €  
30 saioko bonua 90,5 €

### Ordutegia:

Asteleheneretik egubakoitzera,  
10:00etatik 20:30era  
Zapatuetan, 10:00etatik 14:30era

Ferrerias kalea 28, behea ARRASATE

Tel.: 943 79 64 57

# Akelarre

Iturriotz 7 - ARRASATE



Eskulanetako eskolak ematen dira.  
Markoak ipintzen ditugu.  
Zure eskulanak egiteko behar duzun guztia.

- Zeramikak
- Dekorazioa egurrean
- Erretxinak
- Olio-pinturetarako material guztia
- Margoak
- Pintzelak

Olio-pinturak egiten  
ditugu, enkarguz.



MUSIKA

LOS PÉREZ DE NOCHISTLÁN MARIACHIAK ETA ARRASATE MUSIKALEKO BANDA

# Los Pérez de Nochistlán mariachiak gurean

Mexikoko Zacatecas estatuko Los Pérez de Nochistlán taldeak betiko mariachiak ekarriko ditu herrira

IKER BARANDIARAN

Ekainaren 25ean, martitzenean, 23:00etan, Mexikoko Los Pérez de Nochistlán mariachi taldeak kontzertua eskainiko du Monterron parkean, 23:00etan.

**M**artitzenean, hila-  
ren 25ean, Mexi-  
koko Los Pérez de  
Nochistlán  
mariachi taldea gurera eto-  
rriko da, eta gaueko hamai-  
ketan, kontzertua eskaini-  
ko du Monterron parkean.

Mariachi Internacional  
Los Pérez de Nochistlán tal-

dea aurretik ere izan da  
gurean, baita Oñatin ere;  
izan ere, Los Pérez de  
Nochistlán taldea Mexiko-  
ko Zacatecas estatukoa da,  
eta Zacatecas Oñatirekin  
senidetuta dago.

1998. eta 1999. urteetan,  
Euskal Autonomia Erki-  
degoan eta Espainiako Esta-  
tuko zenbait probintzian  
bira luzea egin zuten.

**MENDE ERDI DAUKAN TALDEA**  
Los Pérez de Nochistlán tal-  
dea 1951. urtean sortu zen,  
Mexikoko Zacatecas esta-  
tuko Nochistlán hirian. Sor-  
tzaileak Crispin anaiak,  
Arcadio eta Pedro Pérez,  
izan ziren. Poliki-poliki, tal-  
dea sendotuz joan zen eta



Los Perez de Nochistlan taldea hamahiru musikarik osatzen dute.

Mexikoko hiri garrantzi-  
tsuenetan jotzeari ekin zio-  
ten, baita AEBetan eta Hego  
Amerikako beste hainbat  
hiritan ere.

Hamahiru musikarik  
osatzen duten talde hori  
Mexikoko Estatuaren  
ordezkari gisa ibili izan da  
nazioarteko hainbat eta

hainbat jaialditan.

Los Pérez de Nochistlán  
taldeak mariachi klasiko-  
ak eta Mexikoko doinu  
berriak uztartzen ditu zuze-  
neko emanaldietan. Mon-  
terronen, zuzenean,  
hamahiru musikari izango  
dira: hiru tronpeta, sei bio-  
lin, bi gitarra, viuela bat eta  
gitarroi bat. Mariachien  
taldeko zuzendaria Santia-  
go Muñoz Carrillo da.

**Mariachi Internacional Los Pérez de Nochistlán taldeak mariachi klasikoak eta Mexikoko doinu berriak uztartzen ditu**

Monterron parkean

Martitzena 25  
23:00etan

## Arrasate Musikaleko Banda

**A**rrasate Musikale-  
ko Bandaren San  
Juan jaietako  
kontzertua klasiko-  
tan klasikoa da.  
Jendeak gustura  
hartzen du, eta jaieta-  
ko urteroko kontzer-  
tuan Monterongo  
eserlekuak bete  
egiten dira.

Kontzertua ohiko  
egunean izango da,  
hau da, San Juan  
egunean, 13:00etan,  
Monterron parkean.  
Eduardo Arzamendik  
zuzendutako taldeak  
honako abestiak joko  
ditu: *Martín Domingo-  
ren Peña Taurina*  
*Vitoriana*, *Penders-en*  
*Reverie*, *Henry Mancini-  
niren Drummer's*  
*delight*, *Federico*  
*Morenoren Luisa*  
*Fernanda*, *Juan de*  
*Oruénen Dianas de*  
*San Fermín*, *Ricardo*  
*Amianoren Estampas*  
*bilbainas*, *Elton John-  
en El Rey León* eta  
*Juan Arzamendiren*  
*Gora Arrasate* eta  
*San Juan*.

Aurretik



Uda dator  
gozatu eguzkiaz

Lore

Olarte, 10  
Arrasate  
Tfnoa. 943 79 52 50

Ondoren



**Leintz**  
Garraioak S.L.

230 Postakutxa • San Andres Auzoa, 10D  
20500 ARRASATE  
Tel. 943 71 27 07 / Faxe. 943 71 17 69  
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com  
www.leintz.com

Ondo Pasau San Juan Jaiak



Deutsche Post  World Net  
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



## Festa zoriontsuak opa dizkizue

San Juan Erreka z/g Elgeta bidea. Bergara - Tel. 943 763 642 - Faxe 943 765 425

 **GUIPUZCOANA**  
**EURO EXPRESS**

CAFÉ

**IAMAI**

KOMITZEZIMO KALEA 14

943 71 29 95 - 20500 ARRASATE

**KYMETZ**

Kazuelatxoak,  
ogitartekoak eta  
pintxoak

Maala, 15  
Tel.: 943 79 60 14  
ARRASATE

**ONDO PAS**

**Monte  
taberna**

Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

*Giro desberdin bat!!*



**Jai Zale Taberna** ★

Olarte 37, Behea      20500 Arrasate      Tel.: 943 796 792

**ESKIÑA  
taberna**

Olarte, 25 ■ ARRASATE ■ Tel.: 943 79 20 20

**RUMBA  
TABERNA**

Iturriotz kalea  
ARRASATE • Tel.: 943 79 20 00



**Itzala**

Iturriotz kalea, 19  
943 77 30 29

**DISCO-BAR**




**Disco-Bar Gureleku**

Zarugalde, 17 beheka • ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 29

# U SAN JUAN JAIAK!!!

## BRANKA TABERNA

Jaietan ondo pasa!  
Zarugalde 1 • Arrasate • Tel.: 943 79 21 13



## ALDAPE Taberna

Espezialitatea: menua-karta

Iturriotz, 41  
Tel.: 943 79 70 41  
ARRASATE



TLF. 943 711762

## IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11  
ARRASATE

## ETXERAT TABERNA

ZURGIN KANTOI, 5 • Tel.: 943 79 20 52 • ARRASATE


EUSKAL PRESOK  
EUSKAL HERRIRA!

## OKORETEGI

## KAFETEGIA

Juan Carlos Guerra, 5 behea • ARRASATE • Tel.: 943 77 03 62

# S. Carrascal, S.L.



- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Bestelako armairuak

*San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu!*

Gipuzkoako etorbidea, 6-1

Tel.: 943 79 01 82

ARRASATE-MONDRAGON

E-posta: scarrasc\_1@infonegocio.com



*Arrasateko Eusko  
Alkartasunak San  
Juan zoriontsu eta  
alaiak opa dizkio  
Arrasateko herriari*

**KOADRILAK**

**AURTEN ERE GAZTEAK JAIK GIROTZEN AHALEGINDUKO DIRA**

# Eguneko eta gaueko jaiaren arima

## Herriko koadrilek jai egitarau zabala antolatu dute aurtengo San Juan jaietarako

IKER BARANDIARAN

Iaz San Juan jaiak eman zieten bultzadari eusteko, aurten ere koadrilek egitarau zabala antolatu dute jaiak girotzeko eta parte hartzea indartzeko.

Arrasateko koadrilek iaz argi erakutsi zuten ez direla geldi egotekoak. Aurten ere, esfortzuzkoa egin, indarrak batu eta San Juan jaiak girotzeko ahalgaria egingo dute.

Maiatzean, herriko hamar bat koadrilatako

ordezkariak gaztetxean batzen hasi ziren, eta jaiak gehiago girotzeko egitaraua prestatzen hasi ziren.

### 'OLINPI-POTEOA'

Koadrilek, gutxi gorabehera, iazko egitarau antzekoa antolatu dute: San Juan bezperako txupinazoan elkartuko dira koadrila guztiak, batera bazkalduko dute eta Maalatik plazaraino makala eramango dute. Horrela hasiko dira jaiak. Une horretatik aurrera, koadrilak jaietako protagonista bilakatuko dira.

Goizero, herriko plazan, koadrilek txokolata banatuko dute, eta ahal duten ekitaldi guztietan



ANDER GILLENEA

Iaz, San Juan jaietan, herriko koadrilen parte hartzea oso handia izan zen.

## Koadrilekin ezin izango zara aspertu

**DOMEKA 23**  
**12:00: TXUPINAZOA.** Herriko plazan elkartuko dira koadrila guztiak.  
**14:00: Bazkaltzera joateko, autobusa.** Txartelak eskuratu.  
**17:00: MAKALA.** Koadrilak Maalan elkartuko dira makala herriko plazaraino eramateko.  
**18:00: TRIKI-POTEOA.** Herriko plazan koadrilek makala jasoko dute. Horren ondoren, triki-poteoa.

**ASTELEHENA 24**  
**08:15: TXOKOLATE-JANA.** Herriko plazan.  
**18:30: PILOTA PARTIDUAK.** Zaldibar

pilotalekuan koadrilek antolatutako pilota partiduak.  
**04:30: Kulero eta Galtzontzilo herri lasterketa.**

**MARTITZENA 25**  
**08:15: TXOKOLATE-JANA.** Plazan.  
**11:30: POTEOA.** Seber Altube plazan koadrilek, txarangarekin, poteoa.  
**14:30: BAZKARIA.** Gaztetxean.  
**17:30: OLINPI-POTEOA** Alde zaharrean zehar, txarangarekin.

**MARTITZENA 26**  
**00:00: TOPA.** Koadrilek gaztetxearen omenezko topa egingo dute.

Alde zaharrean

Jai egun guztietarako antolatu dituzte ekitaldiak, eta, batez ere, Koadrilen egunerako.

parte hartuko dute.

Bestalde, koadrilen egitarauaren berritasun nagusiak hauek izango dira: San Juan egunean, astelehenean, Zaldibarko pilotalekuan pilota partiduak antolatu dituzte; eta martitzenean, Koadrilen egunean, *Olinpi-poteoa* egingo dute.

*Olinpi-poteoa* txarangaren laguntzarekin egingo dute, arratsaldean, gaztetxe bazkariaren ondoren. Bost proba izango ditu: zaku lasterketa txosnen gunean; sokatira Ferrerriaren; aulkien jokoa herriko plazan; karro jaurtiketa Seber Altuben; eta asto jaurtiketa txosnen gunean.

Horrez gainera, iaz estreinatu zuten Kulero eta Galtzontzilo herri lasterketara ere jende asko animatzea espero dute.

Bestalde, aurten ere partxis jokoa koloreak izango dituzten kamisetak aterako dituzte, eta salgai jarriko dituzte ohiko lekuetan. Bukatzeko, San Juan jaietako azkeneko gauean, 00:00etan, gaztetxean, topa egingo dute gaztetxe horren azkeneko San Juan jaiak izango direlako.

**SIKOL**

Uda honetarako bainu eta barruko arropen moda SIKOLen

Top-a Opari

Olarte 31 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 89 32

KALE GIROA

HIRU TXOSNA JARRIKO DITUZTE, ETA HANDIENA EGUNEZ ERE ZABALIK EGONGO DA

# Txosna bat egunez ere zabalik

**Konpartsa Ilegalen Txosnan bazkaltzeko eta afaltzeko aukera egongo da 24an, 25ean eta 26an**

XABIER URZELAI

**Aurten, txosnagunea egunez ere bizirik egongo da. Hori da Konpartsa Ilegala osatzen duten taldeen helburuetako bat. Guztira, hiru txosna egongo dira jaietan.**

**G**uztira, hiru txosna egongo dira aurten-go sanjuanetan: Erdu AEK-k jarriko du bat, Euskal Herrian Euskaraz taldeak eta Arrasateko Errugbi Taldeak erdibana jarriko dute beste txosna bat, eta hirugarrena, handiena, Konpartsa Ilegalen izenean egongo da. AEK-k, Euskal Herrian Euskaraz taldeak eta Arrasateko Errugbi Taldeak aurten ere ez dute kalerik egingo. Orain arte urtero egon izan diren beste talde batzuk ere izango dira txosnen gunean, Konpartsa Ilegalak izenarekin. Aurten, gainera, inoiz baino txosna handiagoa jarriko dute, eta 24an, 25ean eta 26an bazkaltzeko eta afaltzeko aukera egongo da txosna horretan.

**EGUNEZ ERE ZABALIK**  
Konpartsa Ilegalaren esku egongo da jaiak egunez behera ez egitea. Txosnak goizeko zortziak aldera itxi-ko dituzte. Txosna norma-

galen izenean egongo da. AEK-k, Euskal Herrian Euskaraz taldeak eta Arrasateko Errugbi Taldeak aurten ere ez dute kalerik egingo. Orain arte urtero egon izan diren beste talde batzuk ere izango dira txosnen gunean, Konpartsa Ilegalak izenarekin. Aurten, gainera, inoiz baino txosna handiagoa jarriko dute, eta 24an, 25ean eta 26an bazkaltzeko eta afaltzeko aukera egongo da txosna horretan.



ARRASATE PRESS

Aurten ere Kirol Olinpiadak izango dira, eta txosnaguneaz gain, alde zaharrea ere izango dira jokoak.

## Txosnen guneko egitaraua

### EGUBAKOITZA 21

19:00 Txosnen irekiera.

### ZAPATUA 22

16:00 Grafiti erakusketa. Arrasateko eta kanpoko grafitigileak egongo dira.

### DOMEKA 23

23:00 SKA festa. Cyprinidians eta Ttak taldeak ariko dira.

01:00 Herriko plazan Gaubela taldearekin dantzaldia.

### ASTELEHENA 24

19:30 Bertso-Triki-Poteoa.

04:30 Kulero eta galtzontzilo herri lasterketa (Ea aurten ere jendea animatzen den).

### MARTITZENA 25

17:30 Olinpiada probak. (Txosnaguneaz gain, alde zaharrea ere izango dira probak)

### EGUAZTENA 26

19:30 ROCK kontzertua. Serial Number eta Jousilouli. Aretxabale-tako eta Lezoko taldeak.

00:00 Kontzertua amaitzerakoan, txosnak itxi egongo dituzte.

Txosnagunean

**Domeka 23**  
23:00etan

SKA Festa.  
Cyprinidians eta Ttak taldeak ariko dira.

lak egunez itxita egongo dira, baina txosna handiena egunez ere zabalik egongo da. Goizean txosna garbitu eta gero, eguerdi aldera zabalduko dute, eta bertan bazkaltzeko eta afaltzeko aukera egongo da.

**GRAFITIAK ETA KONZERTUAK**  
Aurten ere, urtero moduan, musika izango da nagusi txosnen gunean. Kontzertu asko Monterrongo parkean izango dira, baina txosnen gunean ere izango da zer entzun.

Kontzertu bi izango dira: domekan, gaueko hamaiketarik aurrera, Ska Jaia izango da. Cyprinidians eta Ttak taldeak ariko dira txosnen gunea *ska* erritmoekin giroten; eguaztenean, berriz, arratsaldeko zazpi eta erdietatik aurrera, rock kontzertua izango da. Serial Number eta Jousilouli taldeak ariko dira San Juanek amaiera bikain ematen.

Horrez gainera, beste berezitasun bat ere egongo da txosnen gunean: zapa-tuan, arratsaldeko lauretatik aurrera, grafiti erakusketa egongo da.

Audi A4 Avant berria. Ikusteko beste modu bat dago.



**Udalaitz**

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



**A**  
Arizmendi  
ikastola

"ikasteaz gain, badaukazu zereginik"



Ondo pasau San Juan jaiak!





*Hamar urte zure alboan San Juanetan jai giroan...  
eta noski, URTE OSOAN*

Urrats / Ehune / Etxe Mobiliario / Eya Sukaldeak / Oihana / Epelde / Foto Imagen / Ikatz / Tomas / Phildar / Seguros Elorza / Kutxa / Euskadiko Kutxa / La Caixa / Tokion / Eroski Bidaiak / Karmele / Zubiaga / Aldedi / Arregi / Artea / Aranzabal / Eya / Milar Elkoro / Hemen / Muruamendiaraz / Onandia / Landaluze / Otamendi / Parlance / JG Impresión Digital / Anboto / Izozkitegi / Feli / Erosle / Kili-Kolo / Belem / Maza / Flash / Gili-Gili / Haurtxoa / Klas / Laket / Lasagabaster / Los Vaqueros / Luko / Mabel / Marga / Markiegi / Troko / Ume / Z-R / Zur-Lur / Okendo Kirolak / Uriarte Sport / Hire / Ariane / Bea / Nerea / Sikol / Titare / Altuna / Lore / Zabaleta / Zarraoa / Ceciaga / Lilura / Alonso / Beatriz / Egizabal / Totem / Txikiak / Txuntxurunberde / Yoar / Zabala / Zubia / Beinke / Galeria 44 / Garay Saskiak / Garagorri / Tamayo / Portaloi Kioskoa / Kajoi / Lorategi / Monte / Bed's

2001eko urria  
Zozketa, 500.000 pezetako erosketak egiteko



2001eko gabonak  
3 otzara erraldoiren zozketa



2002ko maiatza  
600 euroko zozketa



Jarrai ezazu ekaineko eta uztaileko  
600 euroko zozketan parte hartzen



**RENAULT**



**Etorkizunari  
aurre  
hartzen diogu**



**Arrasatear guztioi  
San Juan jai zoriontsuak opa dizkizuegu**

**MECA**

**Erakusketa eta tailerra:** Amillaga, 5. **BERGARA.** Tel.: 943 76 40 68

**Erakusketa eta tailerra:** San Andres auzoa. **ARRASATE.** Tel.: 943 71 24 72



DANTZA

ERREMENTARI DANTZA 23RAKO GERTU

# Herritik sortutako eta herritarrek egindako dantza

Nafarroa etorbideetik herriko plazaraino

**Domeka 23  
21:30ean**

**irtengo dira  
Zaldibartik**

Gero, San Juan sua

Arrasaten asmatutako dantza horretan 150 bat herritarrek hartuko dute parte

UBANE MADERA

Sanjuanetan herritarren eta kanpokoekin ikusmira eta harridura pizten duen ekitaldietako bat da Errementari dantza. Urtero, herriko kaleak eta plaza ikusle betetzea lortu ohi du.

Sanjuanetan erabat errotuta dagoen ekitaldietako bat da Errementari dantza. 1995ean izan zen estreinaldia, eta ordutik hona, jaietan ikusle gehien batzen duen ekitaldietako bat da; besteak beste, jende mordoak parte hartzen duelako dantzan. Lore Gazteak dantza taldeko kide Joxe Jaime Bengoa *Gomix*-ek adierazi digunez, "iaz, partaide kopurua 150era mugatu behar izan genuen, ez ginelako plazan ondo kabitzen", eta aurten ere gauza bera egin dute. Arrostitz eta Lore Gazteak taldeetako dantzariekin batera, Arrasate Musikaleko Bandak, Trikitixa Eskolak, txistulariek, gaitariak, txalapar-



Seber Altube inguruan geldiuinetxoa egin eta Polka dantzatuko dute Lore Gazteak eta Arrostitz taldeetako dantzariak.

tariak eta Erraldoi eta Kili-kien Konpartsak ere parte hartuko dute, eta herriko bertsolarien eta albokariak laguntza ere izango dute Errementari dantzan.

Oro har, eta Santama-

**Arrasateko kultura eragile gehienek bat egin dute Errementari dantza asmatu eta egin ahal izateko**

setako Txerri dantzan izaten den moduan, Errementari dantzaren sortzaileen (eta horien artean Jose Ramon Vitoria nabarmendu behar da) helburua zen herriko jai esanguratsue-

tan kultura eragile guztiek bat egitea eta herriarendako zerbait berezia prestatzea. Duda barik, hori lortu dute bai Santamasetan baita sanjuanetan ere.

## IKUSGARRIA

Errementari dantza ikusgarria da, bere baitan, eta Iparraldeko eta Nafarroako dantzetan oinarrituta, Alkate dantza, Ingurutxoa, Polka eta San Juan Zortzi-koa batzen ditu-eta. Horrez gainera, urte luzez arrasatearrak izutu zituen dragoia akabatu zuen errementariaren istorioan oinarrituta dago. Hortaz, Arrasaten asmatutako dantza izateaz gainera, herriaren historia eta herriko kultura taldeak uztartzen dituen ekitaldia da.

Zaldibartik irtengo dira dantzari eta musikariak, herensuge eta guzti; Seber inguruan geldiuinetxoa egingo dute, Polka dantzatzeko; gero, Iturrioztik gora joango dira eta han atsedentxoa egingo dute, herriko plazara sartu aurretik. Eta plazan, jakina, dantza oso-osorik egingo dute.


## BASTER-ALDE

J A T E T X E A

P A R K I N A E T A T E R R A Z A

Galartza auzoa • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 24 58

- X Ezkontzak
- X Bataioak
- X Jaunartzeak
- X Enpresa bazkariak eta lagunartekoak



**Barceló**  **Bidaiak**

Gabon gaba etxien goxo-goxo pasau ostien...

**MALLORKA 43.265 pta**  
**TENERIFE 58.570 pta**  
**KUBA 140.100 pta**

...eta beste aukera asko.  
Etorri eta galdetu.

Zorionak eta ondo-ondo pasau!

Maalako Errabala 33 • Tel: 943 79 70 11 Arrasate

*Bikain* Akademia  
**Bikain**  
Akademia

Garibai 6 - B ARRASATE  
Tel.: 943 - 77 11 06  
www.bikain.net

**Udako ikastaro trinkoak:**  
Ekaina, uztaila eta iraila

- Mekanografia
- Informatika
- Internet

Abuztuan, unibertsitaterako eskola partikularrak

Ordutegia: goizez eta arratsaldez

Presta ezazu datorren urteko ikasturtea uda honetan!  
LH, DBH, LOGSE, BT

DRAGOI JANA

DRAGOI TXULETAK HERRIKO PLAZAN

# Bazen Arrasaten dragoi handi eta maltzur bat...

Antzinatik datorren kondaira aitzakia hartuta, Dragoi Jana egingo dute herriko plazan aurtengo San Juan jaietan ere

JULEN IRIONDO

Aspaldikoa, oso aspaldikoa da Santa Barbaran bizi ei zen dragoiaren kontua. Kondaira hura gogotan hartuta, Arrasate-arrok ipuin horren beste atal bat idatziko dugu aurtengo San Juan jaietan.

Udako arratsalde bero bat zen, sargoria, itogarria, gerizpea altxorrik preziatuen bilakatzen duten horietakoa. Edo ez, beroa bai, bazen, baina uda ez zen oraindik geurean, atarian geunden. Baina beroa bai, hura zen beroa. Inor ez zebilen Arrasateko kaleetan, ezta arimarik ere; isiltasun

nak hartua zuen guztia, isiltasun isilak.

Txoriek ez zuten kanturako adorerik, aiton-amonek ere ez berriketarako gogorik, ezkutuan ziren guztiak. Halako batean, Fermin, arrapaladan, kalean behera, isiltasun isil hura oihu jasangaitzez hautsiaz: -Harrapau daue! Harrapau daue!

Halako oihuek Joxe lokuluxkatik altxarazi zuten. Iratzargailua itzali -dagoeneko ez zuen haren beharrik- eta logelatik sukaldeko leihorantz abiatu zen. Burua atera, behèra begiratu eta galde egin zuen: -Zein harrapau daue? -Jausi da, jausi da -zuen pozaren pozaz entzun ere ez zuen egiten Ferminetik; bueno, entzun entzungo zuen, baina ez zen entzuten zuen



Aurten ere dragoi txuletak jatera 500 lagun inguru batuko dira herriko plazan.

IKER BARANDIARAN

hartaz jabetzen. -Zein jausi dan! -egin zion oihu, are ozenago, Joxek. -Jausi da, jausi da dragoia, azkenean jausi da. -Noiz? -galdetu zion Joxek sukaldeko leihoa itxi, ez zuen-eta halako berorik etxe barruan nahi, eta eskaileretan behera kalerantz abiatzen zen bitartean.

Lan horretan ez zuen denbora luzerik behar izan, sukaldeko leihotik desgertu eta puntuko zen-eta kalean, Ferminen aldame-

nean, "eta noiz?, zela?, zeintzuk?", jakin nahiaren jakin nahiez, galdetu beharraren galdetu beharrez, arnasari eutsi ezinda.

-Ointxe bota daue, oin dala ordu laurden -erantzun zion Ferminetik Joxeri. -Bota daue, eh? -Harriduraz Joxek-. Eta zer egitteko asmue daukie oin?

-Jan egin biher ei daue.

-Jan?

-Bai, jan. Datorren astelehena gabien, bederatziretan jarri daue ordua, herriko

plazan; eta herri dana ei dago gonbidatuta.

-A bai? Herriko plazan?

-Bai, herriko plazan, bertan erre eta bertan jan. Aurretik, gainera, bertso-triki-poteue egongo ei da, eta afaldu bittartien bertsolarixek, Txatxiartistak bai eta beste sorpresaren bat be.

Ipuin horrek jatorri bera du beti, baina urtero ale desberdina ematen du argitara. Aurten parte hartu gura izatekotan, erosi txartela lehenbailehen.

Herriko plazan

**Astelehena 24  
21:00etan**

Menua: entsalada, dragoi txuleta piperrekin, gazta eta menbrilloa eta kafea. Salneurria: 10 euro.

## Dragoi txuletak jan eta festara

Urtero moduan, Dragoi Jana izango dugu aurten ere Arrasateko jaietan. San Juan egunean bertan izango da, herriko plazan.

Afari aurrerako, giroa berotze aldera, bertso-triki-poteoa antolatu dute. Arratsaldeko 19:30ean hasiko da trikiti eta bertso jariora herriko kale eta tabernetan zehar.

Afaria iluntzeko 21:00etan izango da. Menua, ondorengo: entsalada, dragoi txuletak piperrekin, gazta eta menbrilloa eta kafea.

Afaldu bitartean ere izango dira hainbat ekitaldi: bertsolariak, Txatxiartistak baita sorpresaren bat ere.

EHEK, AEK-k eta AEDk dute Dragoi Jana antolatzeko ardura. Hain zuzen ere, azken bi erakunde horien egoitzetan eta Monte eta Iturriotz tabernetan egongo dira salgai afarirako txartelak. 500 baino ez dituzte atera; hortaz, azkar ibili.

# egizabal oinetakoak

Jai zorientsuak herritar guztioi.

## CAMPER

MacMara VELETTO

Ferrerias PEDRO MORAGO

Martinelli BARRATS

ANDREA CHENIER

ARRASATE, Olarte 14  
BERGARA, Bidekurutzeta 13

Tel: 943796601  
Tel: 943761228



**STONEFLY**  
ABSOLUTE COMFORT




**GEOX**  
EL ZAPATO QUE RESPIRA



# GRUPO **RKUZ** 1950-2002



*Arkauz zure etxea da.*



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51  
ARETXABAETA




Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82  
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**  
ARETXABAETA



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97  
ARETXABAETA



GAZTETAN

ARRASATEKO JAIETAKO OROITZAPENAK

# Orain dela urte batzuetako San Juan jaiak gogoan

Beti izaten da polita antzinako argazkiak ikusi eta lehengo kontuak gogoratzea, lehengo jantziak ikustea eta, zela ez, gazteago gineneko argazkiak ikustea.



## Txistulari Banda: herrian errotuta aspalditik

Jaien barruan, beste talde eta koadrila askorekin batera, ondo ezagunak dira Arrasaten txistulariak. Urtez urte, fin-fin ibili ohi dira euren doinuekin jaiak alaitzen. Horren adibide irudiotako argazki zaharra. 1949. urtekoa da; hain zuzen ere, urte hartako jaien udal egitarauaren barruan plazaratutakoa. Udal Txistulari Banda zen. Eta, urte hartan, esaterako, San Juan egunean kontzertua eskaintzeaz gain, goizean goiz diana jotzen zuten, eta horrez gain, arratsaldero dantzatzeko musika jotzen zuten herriko gaitariekin batera. Honako hauek agertzen dira argazkian, ezkerretik hasita: ustez Bergara, Felix Jauregi Arraburu, Joxe Esposito eta Jaime Zubialdea.

Egitaraua Eugenio Ibarrek utzi digu, eta informazioa Imanol Espositoren laguntzarekin lortu dugu.

## Irribarrea nagusi neska gazteen artean

Jaietako hirugarren eguneko beste argazki bat da hau. Jende gazteak gehien atsegin zuen eguna zen, eta badirudi egun hura aprobetxatzen zutela jaietako oroitzapenerako argazkiak ateratzeko. Kontatu digute gazteek gehien ospatzen zuten eguna izaten zela, gaur egungo Koadrilen Egunaren modukoa. Oraingo honetan, neska talde bat da gure protagonista. Hemezortzi urte bete berri zituzten orduan. Argazkia, berriz, orain dela 40 urtekoa da, 1962koa, hortaz. Honako hauek agertzen dira argazkian, goian, ezkerretik hasita: Leonor Mondragón, Maria Nieves Sarai, Arantza Bengoa, Glori Ibabe, Kontxi Oregi eta Begoña Baskaran. Beheko biei dagokienez, berriz, ezkerrekoa Milagritos Abetxuko da eta hura besarkatzen dabilena, Dorita Díaz. Glori Iabek utzi digu argazkia.



# URONDO

## Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide industrialdea 5. pabiloia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

# Aitor Belardenda

Osasuna eta elikadura

Olarte 7. Arrasate  
Tel.: 943 79 90 43  
San Juan jai zoriontsuak!

Eskaintzen dizugu:

- Produktu dietetikoak
- Sendabelarrak
- Kirol dietetika
- Elikadura naturala
- Kosmetika naturala
- Dieta pertsonalizatuak

Eta gure espezialisten aholkularitza dietetiko osoa.



Atsegin handiz aditzera ematen dizugu osasun denda zabaldu berri dugula. Zure etxetik gertu gaudenez, erosotasun handienarekin eskaini ahal izango dizkizugu produktu gama zabalena eta gure espezialistaren aholkularitza dietetikoak.


**Santiveri** Auzotarrak gara dagoeneko



CAD/CAM



Prototipoak



Kontrolerako lanabesak



**EKIDE S.L.**

San Andres auzoa 2. 4A pab.  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 43  
Faxa: 943 71 21 43  
e-mail: ekide@sarenet.es

*San Juan jai  
zoriontsuak pasa  
ditzazuela opa  
dizuegu!*



### Beti Gazte koadrilaren postal dotorea

**H**ara zein dotore jantzi ziren Beti Gazte koadrilakoak jaietako argazkia ateratzeko orduan. 1953ko sanjuanetako hirugarren eguna zen eta orduan, ohitura izaten zen musika onena, janzkera onena... zuen koadrilari saria ematea. Goitik, ezkerretik eskumara, hasiko gara zein den zein esaten: Jose Luis Arregi, Ignacio Urionabarrenetxea, Juan Jose Gaztañares, Julio Iriondo, Jose Luis Arroitia, Víctor González, Rafael Atxa, Luis Berezibar eta Igancio Baltzategi. Zutik, bigarren ilaran, ezkerretik hasita: Imanol Bolinaga, Vicente Langaran, Pako Uribe eta Juanito Olazabal. Eta lurrean jarrita eta ezkerretik hasita honakoak daude: Pako Barrena, Jose M. Beitia, Codina kataluniarra, Jesus Lazkano, Alfonso Artzamendi, Joxe Urrutia, Jabier Salaberri eta Jose Mari Bergaretxe. Argazkia Maria Ana Langaranek utzi digu.

### Zahatoa hartu eta kamera aurrera!

**E**zin bestela izan, eta argazki zaharrekin bukatzeko, jaien hirugarren eguneko beste argazki bat ekarri dugu. 1960. urte ingurukoa da, herriko plazan aterata. Berriemaileak kontatu digunez, 12:00etatik 14:00etara, dantzaldia izaten zen. Esan digunez San Juanetan ohitura zen inguruko herrietako musika bandaren bat etortzea. Oso ezaguna eta oso ona ei zen, esaterako, Bergarakoa. Honako hauek agertzen dira argazkian, goian, ezkerretik hasita: Egidon, Román López, Julito Vaquero eta *Pinta*; behean, ezkerretik hasita, honakoak daude: Luis Uriarte, Azula *Morante*, Marco eta kanpotik etorri zen lagun bat. Eskuma-eskumako emakumea Mari Carmen Rodríguez da eta haren ondokoa, ezezaguna. Argazkia Jose Mari Lasagabaster *Wentze*-en artxibokoa da; informazioa Román Lópezek eta Eugenio Ibarrek eman digute.



# AMAGARA

Erdiko kale 54  
Arrasate • 943 79 09 09

Jai zoriontsuak **2002**

**AMAGARAN ez zara erreko, beltzaran jarriko zara.**  
Zaindu zure itxura, oporretarako 28 egun geratzen dira bakarrik.





Iturriotz 4. ARRASATE  
Tel.: 943 79 14 84




Bizitza  
etengabeko  
bidaia delako




Bidaiarako  
eta narruzko  
artikuluak



Samsonite®  
WORLDPROOF



JOSE ANTONIO  
GIZONEZKOEN  
ile apaindegia



San Juan  
jai zoriontsuak!



Otalora lizentziaduna 22  
Tel.: 943 79 42 10  
ARRASATE



# ETXEAN NAHI DITUGU!



JON AGIRRE



JOSU URIBETXEARRIA



LUIS MARI AZKARGORTA



PREMIN SANPEDRO



KEPA URRIA



JOSU ARKAUZ




UNAI PAROT



AMAIA ARRIETA



JOSE I. GAZTAÑAGA



JESUS MARI ZABARTE



ENRIKE LETONA




JOSE GABRIEL URIZAR



ARATZ GOMEZ



TXUS GOIKOETXEA



ERREFUXIATUAK

EUSKAL PRESOAK



EUSKAL HERRIRA!!

Arrasateko Alde Zaharreko tabernak:  
Irati, Etxerat, Iluntz, Ekaitz, Iturriotz, Biona, Basati, Jaizale, Kimetz

ZAHARRAK

HERRIKO NAGUSIAK SAN JUAN EGUNEAN PROTAGONISTA

# 80 urtetik gorakoei omenaldia egingo die Udalak

## San Juan egunean, adinduek bazkaria izango dute Abaroan eta omenaldia egingo diete

Aspaldiko ohitura da San Juan egunean Arrasateko laurogei urtetik gorakoei omenaldia egitea. Horrela egin du Arrasateko Udalak azkeneko urteotan, eta aurten ere ez dio hitzorduari hutsik egingo. Astelehenean izango da hori. Omenaldi horren barruan, laurogei urtetik gorakoei bazkaria ere

izango dute. Horretarako, aurretik, adinduek Abaroa zaharren elkartean, Toki Argi elkartean, Musakolako elkartean edo Urbarrin eman beharko dute izena.

### BAZKARIA ETA OMENALDIA

San Juan Bautistan Meza Nagusia entzun ondoren, 12:30ak aldera, alkatea eta zenbait zinegotzi Abaroa



Joan den urtean, Candido Moraleja eta Isabel Zabarte izan ziren Abaroara joan ziren nagusienak.

zaharren elkartera joango dira. Abaroan alkateak eta zinegotziek hantxe batutako laurogei urtetik gorakoei lancha izango dute.

Luncha bukatu bezain laster, Udaleko ordezkariak opari bana emango

diete adinduei. Eta horren ondoren, Abaroa zaharren elkartean batutako gizon eta emakume nagusien omenaldia egingo diete. Arrasateko alkateak, Xabier Zubizarretak, eta Ongizate Saileko ardura-

dunak, Amaia Larrañagak, txapela emango dio gizonetako zaharrenari eta lore sorta, berriz, Abaroara bazkaltzera joango den emakumetako zaharrenari. Edozelan ere, omenaldi eguna heldu arte, ez dute aditze-

Abaroa elkartean

**zapatua 24  
12:30ean**

80 urtetik gorakoei lancha, bazkaria eta omenaldia izango dituzte.

ra emango nortzuk izango diren omenduak.

Geroxeago, eta Abaroara hurreratutako erretiratuak kontu-kontari ibili ostean, bazkari ederra izango dute Abaroan bertan.

### URTEROKO HITZORDUA

Arrasateko nagusiek badakite San Juan jaietako bazkaria eta omenaldia urteroko hitzordúak direla, eta, ahal duten neurrian, han izaten dira. Are gehiago, urtero, lagun askok ematen dute izena bazkari horretara joateko.

Bazkari horretan, ia urtero, Arrasateko laurogei urtetik gorako berrogeita hamar lagun batu ohi dira. Abaroa elkarteko arduradunek aurten ere antzeko lagun kopurua joango dela espero dute. Eguna ondo igaro dezazuela!

## Nahi duzu telefono horietakoren bat?

Horietakoren bat lortzeko, Universal 40 edo 60 kontratuan alta eman behar duzu

Negozio on bat egiteko Vodafone kontratuak aukera onena direla egiaztatu nahi baduzu, zatoz Detelera.

### Universal 40 kontratua

Hau bai dela zure enpresarendako negozio ona.

Universal 40 kontratuan alta emanez gero, 16 zentimo/minuturen truke deitu ahal izango duzu, edozein ordutan, edozein egunetan eta hileko kuota barik. Gainera, orain, MOTOROLA T191 edo SAMSUNG R210 telefonoa lortu ahal izango duzu.

MOTOROLA T191

SAMSUNG R210

### Universal 60 kontratua

Eta hau ere negozio biribila da.

Universal 60 kontratuan alta emanez gero, 13 zentimo/minuturen truke deitu ahal izango duzu, edozein ordutan, edozein egunetan eta hileko kuota barik. Gainera, orain, MOTOROLA T191 edo SIEMENS S45 telefonoa lortu ahal izango duzu.

SIEMENS S45

MOTOROLA V50

DETEL S.L

MAALAKO ERRABALA 33 behea - 20500 Arrasate - Tel.: 943 79 50 32 - 607 45 50 75

2002ko ekaina. Airtel Móvil SAKO telefonía mugikorrek baldintza orokorren arabera emandako zerbitzua. Zeharkako zergak ez daude sartuta. Universal Kontratuen prezioak: dei ezarpena 12 zentimo. Dei nazionalak. Universal 40 kontratuaren kostu minimoa: 40 €. Universal 60 kontratuaren kostu minimoa: 60 €. Eskaintza baliozkoa Universal 40 edo 60 kontratuan alta emanez gero, kontratu horri urtebetez eutsita eta lehenengo urtean baja emateko aukera baztertua.



ZEZENAK

ENTZIERROA ETA BIGANTXAK GOIZEAN

# Nafarroatik Arrasatera arineketalari bila

Ferreriastik  
Laubidera
**Astelehen,  
martitzen eta  
eguztenezan  
09:00etan**

Gero, bigantxak izango dira zezen-plazan

Orozkotik hamabi bat abelburu ekarriko dituzte sanjuanetako entzierroetarako eta bestelakoetarako

UBANE MADERA

Manzarbeitia ganaduzaleak hamabi bat buru ekarriko ditu entzierroetarako eta zezen-plazarako. Hogeigarren urtez etorriko dira Arrasatera. Ganaduzalearen esanetan, korrikalari onak daude Arrasaten.

Ohi bezala, hiru egunez izango dira zezenak eta bigantxak Arrasaten. Astelehenean, martitzenean eta eguztenezan, goizeko bederatzietan, entzierroa; eta horren ondoren, hamaikak arte bigantxak izango dira.

## ENTZIERRO POLITA

Azken hogeitun urteotan moduan, Nafarroatik ekarriko dituzte abelburuak, Manzarbeitia ganadutegitik, hain zuzen. Jabier Manzarbeitia ganaduzaleak berak adierazi digunez, "entzierro polita izango da, oso koloretsua". Jakina, abelburuak ez dira izango San Ferminetakoak modukoak: "Eusko Jaurlaritzak ezarritako mugei kasu egin behar zaie; gainera, albaiariak etortzen dira zelako ganadua ekarri dugun ikus-



Entzierroan zezenak eta joaldunak ibiliko dira; zezen-plazan, berriz, bigantxak; asko jota, handienak 325 kilo izango ditu.

katzera: aberearen tamaina, adarrena..." Asko jota, 325 kiloko abereak izango direla adierazi digu Manzarbeitiak, "eta plazarako txikiagoak, bigantxak". Eta entzierroan, zezenekin batera, joaldunak ere ibiliko dire-

**"Arrasateko ibilbidea oso polita da. Entzierroa alde zaharretik pasatzen da. Eta oso ondo geratzen da"**

la esan digu. Horrekin batera, Arrasatera gustura etortzen direla kontatu digu Jabier Manzarbeitiak: "Hogeigarren aldia da, eta sekula ez dugu arazorik izan. Gainera, Arrasateko Udalak herriko kaleak itxi egiten

ditu hesiekin, antolatetan laguntzen du, eta fundamenez antolatzen du".

## ENTZIERRO POLITA

Ferrerias kaletik irten. Erdiko kaletik eta Iturbidetik segitu, eta Laubide plazan bukatuko da entzierroa. Gero, bigantxak izango dira Laubiden. Horren harira, Arrasateko ibilbide polita dela uste du Orozkoko ganaduzaleak: "Arrasatek alde zaharra du eta entzierroaren ibilbidea handik pasatzen da. Oso ondo geratzen da. Horrez gain, pare bat bihurtu ere baditu; ondorioz, abereak motelago joan behar izaten dira, horrek apurtxo bat geldotu egiten du entzierroa. Horrela politagoa izaten da".

Bestalde, gaineratu digu Arrasaten bere animaliei tratu ona ematen dietela: "Ez dago endredatzailerik, animaliak ondo zaintzen dituzte". Hori bai, zezen-plazan apurketaren bat zein beste egin izan dituztela ere nabarmendu du Jabier Manzarbeitiak: "Horrela, bada, astelehenean, martitzenean eta eguztenezan duzue hitzordua arineketalariok. Goizean goiz jaiki eta ondo esna joatea komeni da, atzetik, ziztu bizian etorriko dira eta Orozkoko zezenak eta joaldunak.



**Parques  
y Jardines**

- Parke eta lorategien sorkuntza.
- Lorazaintzako mantenimendua oro har.
- Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.


Casa-Torre kalea. Tel.: 94 681 90 82 • ABADIÑO



# fordfocus

aire egokituarekin

**12.000€-tik aurrera**



**Gozatzeko pentsatuak,  
irauteko eginak**



Gomendatutako salneurria. Focus Intro 1.4 75 ZP. Garraioa, BEZ, matrikulazio zerga eta kontzesionarioaren ekarpena barne.  
Prever Gasolina Plana barne. Baliozkoa 2002ko uztailaren 10a arte.

**MUGARRI AUTOAK**

Araba etorbidea z/g

**ARRASATE**

**Tel.: 943 797 564**

**902 442 442**  
**www.ford.es**

IRRATIA

ARRASATE IRRATIA SAN JUAN JAIEN BERRI EMATEN

# Herriko irratia jaietan, buru belarri

Arrasate Irratia San Juan jaietan zuzen-zuzenean, egunero, 11:00etatik 14:00etara

ARRASATE IRRATIA

Sanjuanetan Arrasate Irratiak saio bereziak eskainiko dizkizue, ekainaren 24tik 26ra. Goizero irratia piztu, eta jaietan gertatzen denaren berri izango duzue.

San Juan jaien jarraipena egiteko gertu dago Arrasate Irratia. Ekainaren 24tik 26ra, hortaz, astelehenetik eguaztenera, egunero, jaien berri emango dizuegu. Hain zuzen ere, goizeko hamaitan hasiko dugu emisioa, eta arratsaldeko ordu bie-

tan bukatuko dugu.

Horretarako, lantalde zabala ariko da jaien gaineko elkarrizketak egiten, bai kalean bai estudioan ere. Aitziber Aranburuzabalaz, Nerea Zubietez eta Maria Agirrez gain, Deiane Arrieta eta Mikel Aranburu ariko dira jaien berri ematen. Deiane eta Mikel kalera irtengo dira, eta zuzeneko elkarrizketak egingo dizkiete jaietan diren herritarrei. Betiko moduan, Gaizka Vitoria eta Aitor Oskotz arduratuko dira arlo teknikoaz.

Astelehenean hasi arren, baina, San Juan bezperako giroa ere jasoko dugu. Hain zuzen ere, aste-



Arrasate Irratikoz kazetari eta teknikariak, San Juanen berri emateko gertu.

IKER BARANDIARAN

leheneko saioaren hasieran danbor doinuak izango dira nagusi, baita Errementari dantzari dagozkionak ere. Bestalde,

goizero kalera irtengo gara mikrofonoarekin, entzierroko giroa jasotzeko asmoz. Martitzeneko saioa, berriz, Dragoi Janean egin-

go ditugun elkarrizketekin hasiko dugu, baina egun horretan umeak izango dira protagonista nagusi. Hortaz, etxean egon arren, San Juan jaietako giroa etxera eramango dizue Arrasate Irratiak. Gainera, entzuleok parte hartzeko aukera izango duzue, jaien gaineko iritzia emateko. Horretarako, dei egin 943 71 17 31 telefono zenbakira.

**“Kaleko giroa, jaietako protagonistak eta zuzeneko elkarrizketak izango dira San Juanetako irratsaioen ardatz.”**

Arrasate Irratia

**Astelehenetik eguaztenera**

11:00etatik  
14:00etara zuekin zuzenean.

**Oraingo aste bukaeran**

**A**ste barruan eskaini ditugun elkarrizketa batzuk berriro izango dira entzungai zapatuan eta domekan. Joseba Garitaonaindia izan da oraingo astean solaskide Arrasate Irratian. Espetxetik irten berri da, eta kartzelan egin dituen urteez mintzatu da Arrasate Irratian. Bestalde, San Juan jaiak datozela eta, Doctor Deseo taldeko kide bat elkarrizketatu dugu. Bihar, zapatua, emango du kontzertua talde horrek. Horrez gain, Putz Jaia-ren gainean egin dugun elkarrizketa ere berriro eskainiko dugu. Zapatuan eta domekan, 11:00etatik aurrera, izango duzue **Asteko Elkarrizketak saioa**. Eta uztailaren 1ean, berriz, udako programazioari helduko dio herriko irratia. Berritasunez beteta etorriko da.




## LOS VAQUEROS

Zerkaosteta 3 • 943 79 98 48  
Zerkaosteta 5 • 943 79 97 55

San Juanetan, bakerotan.  
Primeran pasetako!!





# ZUTARRI S.L.

## Eraikuntza enpresa

Zuekin lanean  
kalitate eta konfiantza osoz.

*Jai zoriontsuak opa dizkizuegu*

Deitu konpromisorik gabe: Tel.: 639 77 86 90

Zerkaosteta, 17 · 20500 ARRASATE



POLO DE INNOVACION  
**GARAIA**  
BERRIKUNTZA GUNEA

# Udako Ikastaro Trinkoak

Uztailaren 1etik 24ra

- ✓ Mekanografia ordenagailuz
- ✓ Informatika-Ofimatika
- ✓ Internet
- ✓ Microsoft project
- ✓ Autocad
- ✓ Programazio informatikoa: Pascal,...
- ✓ Gestio kontablea: "Nomina Plus", "Fact Plus", "Conta Plus"
- ✓ Nomina eta gizarte segurantzaz
- ✓ Informatikako ekipaien mantentze eta konponketa
- ✓ Laguntza klaseak
- ✓ Enpresa zientziak
- ✓ Ingeniaritza (Abuztuan ere bai)




AKADEMIA

## BASTIDA

INEM-ek HOMOLOGATUTAKO IKASTETXEA

Araba Etorbidea, 3 - 1ª • 20500 Arrasate-Mondragón  
Tel.: 943 79 35 33 • Fax: 943 79 06 28 • E-mail: bastida@bastida.es



## Industria erakusketa

Debagoiena, giza abentura tradiziotik berrikuntzara



Euzkadi

Nafarroa etorbidea, 2  
20500 Arrasate

(Zerrajerako eraikin zaharra)

Ordutegia:  
Martitzenetik egubakoitzera 18:00 - 20:00  
Zapatuetan 10:00 - 14:00 / 18:00 - 20:00  
Domeketan eta jaiegunetan: 10:00 - 14:00  
Bisitaldi gidatuak martitzenetik egubakoitzera  
10:00 - 12:00  
Aldez aurretik deitu 943 711 791



TELEBISTA GOIENA TELEBISTAN SAN JUAN JAIK

# GOITB ere San Juan jaietan izango da

## Ibarreko telebistak hiru saio berezi eskainiko ditu: Albistegia, 'Xeleberri jaietan' eta Salbea

JULEN IRIONDO

**GOITB ere Arrasateko jaietan izango da. Ez du, hortaz, jairik hartuko. Hiru saio berezirekin emango du San Juanen berri.**

Ibarreko telebistak berezi eskainiko ditu GOITBk. Ekainaren 24an, San Juan egunean, izango da lehenengoa.

Bada, Goiena Telebista San Juanei trataera berezi hori ematen ahaleginduko da. Hala, ibarreko telebistak tresneria eta lantalde osoa kalera aterako du, Arrasateko jaiak bertatik bertara gozatu ezin dituztenek haien berri izateko.

San Juanak direla-eta hiru saio berezi eskainiko ditu GOITBk. Ekainaren 24an, San Juan egunean, izango da lehenengoa.

Ibarreko telebistak Arrasateko herriko plaza bilakatuko du plato eta han-



Arrasate Telebistak egin ohi zuen bezala, Goiena Telebista ere kalean izango da San Juanetan.

txe grabatuko du egun horretako eguerdiko albistegia. Albistegiak 45 minutu inguru iraungo du, eta zati bi izango ditu: bata,

ohikoa, eguneko albisteez osatua; bestea, desberdina, magazin erakoa, gonbidatuekin, elkarrizketekin eta erreportajeekin.

Hortaz, jai giroz kutsatutako albistegia izango da astelehenekoa. Aurrez grabatutakoa, betiko moduan, 14:00etan eskainiko du GOITBk, eta iluntzean -20:00etan -errepikatu egingo dute albistegia.

Albistegiaz gain, San Juanen gaineko beste saio bi ere izango dira: batetik,

Herriko plazan

**Astelehena 24  
14:00etan**

GOITBk Arrasateko plazan grabatuko du albistegia.

### Goiena Telebista San Juan jaietan

**EKAINAK 24  
14:00: ALBISTEGIA**  
Eguerdiko albistegia errepikatu egingo dute arratsaldean, 20:00etan.

**EKAINAK 25  
20:45: XELEBERRI**  
*Xeleberri jaietan* saio berezia San Juan jaien gainean.

**EKAINAK 24 ETA 25  
13:00 eta 14:30: SALBEA**  
Domekan izango den Salbe Solemnea eskainiko du.

*Xeleberri jaietan* berezia, martitzenean, 20:45ean (eta eguaztenean, 14:30ean, errepikapena); bestetik, Salbe Solemnea. Urtero egin ohi duen legez, GOITBk -lehen ATBk- oso-osorik emango du domekako ospakizun erlijiosoa, astelehenean 13:00etan eta martitzenean 14:30ean.

**GOITBk oso-osorik emango du domekako Salbe Solemnea astelehenean eta martitzenean**

# Loramendi kirolak



McKinley 29,95€ / 4.983 Pta



Goretex 74,95€ / 12.471 Pta



Ranger 3 69,95€ / 11.639 Pta



Alpine 30 44,95€ / 7.479 Pta



McKinley 36€ / 5.990 Pta



5,95€ / 990 Pta



24€ / 3.995 Pta

Elizabeth Arden

Gorputz tratamenduak

Elizabeth Arden  
All About  
Moisturizing Skin Treatment  
with Vitamin E  
Anti-Oxidant  
in 100% pure & 100%


Elizabeth Arden

LANCASTER

TERRACOTTA



GUERLAIN  
PARIS



- Mailetak eta poltsak
- Bisuteria
- Opariak

KOSMETIKA  
Lancaster  
Guerlain  
Elizabeth Arden



Kanpatorpea, 4 • ARRASATE • Tel.: 943 79 12 19




San Juan 1 A,  
BERGARA  
943 76 54 91  
Faxa:  
943 76 08 04

UGARTE  
AROSZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak





ARRASATE  
**Iñaki Lage**  
Ekainaren 16an, 12 urte.  
Zorionak! gurasoen partetik.



ARRASATE  
**Ruben Lage**  
Ekainaren 21an, 16 urte.  
Zorionak! gurasoen partetik.



ARRASATE  
**Oihana Garmendia**  
Maiatzaren 21ean, 23 urte.  
Zorionak Oihan! T.M.T



ARRASATE  
**Ion Lezeta**  
Ekainaren 21ean, 24 urte.  
Zorionak! T.M.T



ARRASATE  
**Placi Garcia**  
Ekainaren 8an, urtebetzea.  
Zorionak etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Marisa del Pozo**  
Ekainaren 11n, 23 urte.  
Zorionak! Umezaintzako lagunen partetik.



ARRASATE  
**Laura Alutiz**  
Ekainaren 27an, 24 urte.  
Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE  
**Sandra Rico**  
Ekainaren 18an, 18 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Markel Blanco**  
Ekainaren 6an, 13 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Oier Uribesalgo**  
Ekainaren 24an, 4 urte.  
Zorionak! Umezaintzako laguntxoaren partetik.



ARRASATE  
**Ane Hernando**  
Ekainaren 24an, 4 urte.  
Zorionak! Umezaintzako laguntxoaren partetik.



ARRASATE  
**Aner Ozeta**  
Ekainaren 17an, 5 urte.  
Zorionak! Umezaintzako laguntxoaren partetik.



ARRASATE  
**Julen Mendarozketa**  
Ekainaren 14an, 5 urte.  
Zorionak! Umezaintzako laguntxoaren partetik.




ARRASATE  
**Julen Galartza**  
Ekainaren 13an, 4 urte.  
Zorionak! Umezaintzako laguntxoaren partetik.



ARRASATE  
**Ion Uribesalgo**  
Ekainaren 7an, 6 urte. Zorionak! Umezaintzako laguntxoaren partetik.



ARRASATE  
**David Martin**  
Ekainaren 3an, 6 urte. Zorionak! Umezaintzako laguntxoaren partetik.




**Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.**

Zatoz Arrasate Pressera argazki batekin eta utzi gure esku!  
Otalora Lizentziaduna 31.

### Adi!

Hurrengo zenbakian, **ekainaren 21etik 28ra** bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu. **Argazkiak martitzenera arte jasoko ditugu ARRASATE PRESSko egoitzan.**

## Fiat Kanpanzarrek San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue arrasatear guztioi



# KANPAZAR

# FIAT



Tailerra: Bizkaia etorbidea z/g. Tel.: **943 79 41 98**  
Erakusketa: Araba etorbidea 32 Tel.: **943 79 77 66**

**ARRASATE**

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko ekainaren 21a / 30. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

## Greba dela-eta, osoko bilkura martitzenean

UBANE MADERA

Eguazteneko grebaren ondorioz, martitzenera aurreratu dute oraingo astean osoko bilkura. Gai gutxi zituen Udalbatzarrak lantzeko.

Horien artean, Hirigintza eta Lan batzordeburu Bixente Mondragonek zinegotzi kargua utzi behar duela eman zuten aditzera. EAJ-ko zinegotziak arrazoi pertsonalengatik erabaki du hori.

Horrekin batera, ohikoa den moduan, alkatearen dekretuak ere izan zituzten berbagai. Baita San Martin Eskola ere; izan ere, eskolaren beharrak kontuan hartuta, berritze lanak egiteko aurreproiektua idatzi du Udaleko Hirigintza Sailak. Besteak beste, eskolako berogailu sistema aldatzea komeni da; orain, gasolio bidezkoa dute eta gas bidezko sistema jarri gura dute. Saneamenduan ere hobekuntzak egitea komeni



UBANE MADERA

Berogailu sisteman aldaketak eta saneamenduan konponketak behar dira eskolan.

da, eta eskolarako ekipamenduak ipini gura dituzte (kulunkak, eta abar). Lan horietarako, ia 85 mila euro behar direla zehaztu dute. Baina Udalak ez du horretarako dirurik. Orain, Jaurlaritzak horrelakoetarako dirulaguntzak


atera dituela-eta, laguntza horiek eskatzeko aukera onartu edo ez erabaki behar zuten bilkuran.

Edozelan ere, albistea idaztean batzarra egin barik zegoen; hortaz, ez dago jakiterik zer erabaki duen Udalbatzarrak.



## Olioak eta tailak ikusgai

Ekainaren 22tik ekainaren 30era arte, Idoia Elexpururen olio-en eta Jose Ugarteren tailen erakusketa egongo da Sastiñan. Aste barruan, 18:30etik 20:30era arte egongo da zabalik eta domeketan, arratsaldeaz gain, eguerdian ere zabalduko dute.



# Danona

KARROZERIAK

Konponketak  
txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



# ALDEDI

MARKO-JARTZEAK

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletevea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetvea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

**OHARRAK**

**ARAMAIO HABE-N**

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundeak (HABE) ateratzen duen *Habe* aldizkarian Aramaioaren gaineko artikulua dago ekaineko alean, euskalkieie eskainitako tartean. Herriko eta inguruko datu orokorrak emateaz bat, Anbotoko Dama ere berba-gai dute. Horrekin batera, Ibon Egañak herriko euskararen zenbait bereizgarri ematen ditu. Informazio gehiago gura duenarendako web helbide bat dakar: [habe.org/ikaslearengunea](http://habe.org/ikaslearengunea)

**BOTEPRONTOAN/ Mikel Arantzabal · Txirritola Euskara Elkarteko presidentea**

*“Dakienak euskaraz egin behar du kalean, lotsa barik eta beldur barik, eta berak dakien euskara”*

**T**xirritola Euskara Elkarteak da oraingo asteko gure protagonista. Eta elkartearekin batera, Mikel Arantzabal, elkarteko presidentea. Txirritolaren sortzaileetako bat izan zen Mikel, euskararen egoerarekin kezkatuta. Besteak beste, Txirritolaren gainean esan beharra dago euskara elkarteak eman diola gure aldizkariari izena eta, neurri handi baten, izana:

**Noiz sortu zen elkarteak?**

Oraingo urte bi, martxoan.

**Zelan sortu zen?**

Herrian euskararen erabilera ez zen oso handia, edo kalean, behintzat, ez zuten askorik erabiltzen. Apur bat indartzeko asmoarekin sortu zen Txirritola. Hiru bat batzar egin genituen udaletxean eta dozena bat lagun-edo batu ginen. Handik, sei laguneko batzorde bat irten zen. Ni presidente izendatu ninduten, eta hortxe gabilta.

**Igartzen duzue elkartearen eraginik herrian?**

Guk ez dugu inkestarik edo horrelakorik egin, eta hori neurtzea ez da samurra, gu ez gara gai aldaketarik egon den neurtzeko. Baina bai, konturatu garena da Txirritola oso ondo jausi dela herrian, guztiak ezagutzen dutela zer den eta antolatzen dugun ekintza antolatzen dugula ere, jendeak esaten du: “Txirritolak zera antolatzen du...”. Hortaz, uste dut baduela eragina. Horrek




esan gura du jendea sartu dela, eta ondo sartu, gainera; hortaz, pentsatzen dut hori onerako izango dela. **Ekintzak aipatu dituzu; zer antolatzen duzue?** Gure erronketako bat da hilean behin, gutxienez, ekintza bat antolatzea: berbaldia, antzerkia... Edozer. Oraingo,

horrekin gabilta. **Lehen aipatu duzu euskararen egoera ez dela oso pozgarria Aramaion...** Jakin, gehiengo zabalak daki, %85ek-edo. Baina kalean erabiltzeko orduan asko jaisten da. Gure kezka zen jendeak kalean erabiltzea. Azken baten, hori da helburua: jendeak,

*“Aurtengo jaietan ere Txirritolinpiadak antolatzeko asmoa dugu”*

dakienak, egin dezala. Ondo badaki, gaizki badaki ere, euskaraz egin dezala. **Uste duzu epe luzera onera joko duela egoerak?** Lehengo egunean, egunkaria irakurrita geldialdian gaudela ikusi nuen eta hori kezkatzekoa da. Euskara elkarte, ikastola eta gainerako guztiak elkarrekin joanda ere, uste dut nahiko lan dagoela oraingoari eusten. **Jaiak gerturatu ari dira, zer bait izango duzue gordeta...** Herriko parte gara, eta uste dugu jaietan gure parte hartzea ere igarri behar dela. Hori dela eta, iaz, lehenengo aldiz, *Txirritolinpiadak* egin genituen eta sekulako arrakasta izan zuten, gainera. Hortaz, aurtengo ere antolatzeko asmoa dugu, eta jendeak izena ematen badu, ondo irtengo dela espero dugu. **Zerbait gehitu gura baduzu...** Jendea anima dadila, dakienak euskaraz egin behar duela kalean, lotsa barik eta beldur barik. Eta dakien euskara egin dezala, ez da zertan euskara baturik jakin behar, edo beste mota batekoa...



**PUB HAIZEA**

**SAN JUAN ZORIONTSUAK IZAN!**

**KONTRATAK  
IRYROK S.L.  
ERAIKUNTZAK**



Meatzerreka, 5 bis · Apdo. 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14  
ARRASATE

## ERRETRATUZAHARRA

Gasteiztik Arrasatera,  
sanjuanetarako

**B**etidanik etorri izan da kanpoko jende ugari sanjuanetara. Lehen ere horrela izaten zen. Ikusi, bestela, 1954. urteko San Juan egunean ateratako argazki hau.

Gure berriemailek kontatu digunez, Gasteizko lagunak sanjuanetara gonbidatzen zituzten, eta gero, Amabirjina Zuriaren egunean, eurak joaten ziren Arrasatetik Gasteizera.

Gure lagunak argazkia ateratzeko lekuaren gainean ere aipamentxo bat egingo dugu; izan ere, dagoeneko ez dago horrelakorik Arrasaten. Cerrajera inguruan dago aterata, San Andres auzotik gertu. Hain zuzen ere, ikusten den presa Etxaluzekoa da. Eta apurtxo bat atzerago, errekarren beste aldetik tren

pasatzen zen. Kontatu digutenez, garai hartan, argazkiko leku horretan bertan bainatzen ziren arrasatearrak: "Trena zetorrenean, salto egiten genuen", baita arrantzan egin ere: "Karramarroak, barboak, loinak... Arrantzan egiten genuen". Trenbide edo burdinbidetik gora, berriz, ortuak ei zeuden: artoa...

Honako hauek agertzen dira alboko argazkian, ezkerretik eskumara: lehenengo biak Gasteizko lagunak dira, Pedro Fernández, Elias Ortuoste, ezezaguna, Agustín Peña (Gasteizko argazkilari bat ei zen) eta Juan Zubizarreta *Juanacas*.

**Argazkia:** Pedro Fernández  
**Informazioa:** Pedro Fernández  
**Urtea:** 1954

Aukeratu gehien komeni  
zaizun kontratu librea.

*Ez kezkatu eta deitu lasai nahi duzun orduan eta nahi duzun tokira; gainera, ez duzu hileko kuotarik izango.*

KONTRATU *librea*

Kuotarik gabe

Ordutegirik gabe

**ROUTER**  
**COMUNICACIONES, S.L.**

Maalako Errabala, 8 Behea atzean (Garibai)  
ARRASATE  
Tel. 943 71 27 81  
Faxa.943 71 17 85



"Motorola V50,  
telefono txikia  
prezio txikian"  
Euskaltel-en  
kontratu librearekin.

Banatzaile Ofiziala:

# Ehune

Apainketa



Garibai, 8  
Tel: 943 77 11 48  
ARRASATE

# iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



San Juan jai zoriontsuak izan ditzazuela

**Kalitatea • Aukera zabala • Arreta pertsonala**

**FAGOR** 